



TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

I

Mundu mailako emisioak gutxitzeko eta berotzea gelditzeko, 2015eko Parisko Akordioan planetaren tenperaturaren gehikuntza epe luzean 2 °C baino askoz ere beherago mantentzeko eta tenperatura gehikuntza hori industriaurreko mailekiko 1,5 °C-tara mugatzeko helburuak finkatu zituzten. Horrez gain, azpimarratu zuten garrantzitsua dela klima aldaketaren ondorio kaltegarrietara egokitzea eta finantza fluxuak klimarekiko erresilientea den eta berotegi efektuko gasen isurketa txikiak sortuko dituen garapenarekin bateragarria den mailan kokatzea. Akordio hori alderdi sinatzaileek berretsiko dute nazio mailan zehaztutako ekarpenen (NDC) bidez, hau da, aldiro-aldiro berritu beharko diren murrizketa konpromisoen bitartez.

Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldeak (aurrerantzean, IPCC, ingelesezko siglak erabiliz) txosten hau egin zuen 2018. urtean: “1,5 °C-ko berotze globalak planetan eragingo lituzkeen inpaktuak, industriaurreko mailekiko eta mundu mailako berotegi efektuko gasen emisioek jarraitu beharko lituzketen ibilbideekiko”. Txosten horren bidez baieztatu zuten klima aldaketaren inpaktua oso azkar areagotzen ari dela eta XXI. mendean 1,5 °C-ko eta 2 °C-ko berokuntza gaindituko dela, hurrengo hamarkadetan CO₂-ren eta berotegi efektuko beste gas batzuen emisioak nabarmenki gutxitzen ez badira.

Ikusirik tenperatura 2 °C edo 1,5 °C igota sortzen diren inpaktuak oso ezberdinak direla, txostenaren arabera, tenperatura 1,5 °C baino gehiago ez igotzea mugatzen duen ibilbide

batean kokatzeko, munduko CO₂ emisio garbiak %45 gutxitu beharko lirateke 2030ean 2010ekin alderatuta, 2050 inguruan hutsaren parekoak izan beharko lirateke eta mendean aurrera egin ahala, gainerako berotegi efektuko gasetan neutraltasuna lortu beharko litzateke.

2021eko azaroan Nazio Batuek klimari buruz egindako konferentzian (COP26 Glasgow izenekoan) 190 herrialde baino gehiagoren artean akordioa lortu zuten eta, akordio horri esker, Parisko Akordioaren Erregelamendua osatu da eta helburuak mantendu dira. Horrenbestez, aukera egongo da mundu mailako berokuntza 1,5 °C-ra mugatzeko.

2021ean, 1. Lantaldeak “Oinarri Fisikoak” deituriko seigarren ebaluazio txostena idatzi zuen, eta bertan ondorioztatu zuten berotegi efektuko gasen emisioak berehala, azkar eta mundu mailan gutxitzen ez badira, berotzea 1,5 °C-ra edo 2 °C-ra mugatzea ezinezkoa izango dela. Txosten horretan azaldu zuten, gainera, hurrengo hamarkadetan aldaketak eskualde guztietan gehitu egingo direla, baina, bakoitzak aldaketa ezberdinak jasango dituela eta aldaketa horiek areagotu egingo direla berotzea gehitzen bada.

II

Batzordeak, «Europako Hitzarmen Berdea» izeneko 2019ko abenduaren 11ko Jakinarazpenean hazkunde estrategia berri bat ezarri zuen Europar Batasuna ekonomia modernoa duen, baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen dituen eta lehiakorra den gizarte zuzen eta oparoa bihurtzeko. Gizarte horretan, 2050ean ez da berotegi efektuko gasik egongo eta hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik bananduta egongo da. Hitzarmen horren bitartez, Europar Batasunaren kapital naturala babestu, mantendu eta hobetzeaz gain, herritarren osasuna eta ongizatea babestu nahi da ingurumeneko arrisku eta ondorioen aurka. Era berean, trantsizio horrek bidezkoa eta integratzailea izan behar du eta ez du inor atzean utzi behar.

Europar Batasunak, 2021/1119 (EB) Erregelamenduaren bitartez (2021eko ekainaren 30ekoa, klimaren neutraltasuna lortzeko esparrua ezarri eta 401/2009 (EE) eta 2018/1999

(EB) Erregelamenduak aldatzen dituena), 2030ean, 1990ekin alderatuta CO₂ emisioen %55eko gutxitzeko eta 2050ean berotegi efektuko gasen emisioen neutraltasuna lortzeko helburu loteslea ezarri zuen. Halaber, estatu kideek eta Europar Batasunak egokitzapen gaitasuna handitu, erresilientzia indartu eta klima aldaketarekiko zaurgarritasuna gutxitu behar dutela ezartzen du.

2020ko abenduan Europar Batasunak Parisko Akordiorako ekarpena eguneratu zuen eta 1990ekin alderatuta %55eko emisioen gutxitzea lortzeko konpromisoa ezarri zuen. Hori betetzeko, Europako Batzordeak 2021eko uztailen “Fit for 55” izeneko neurri multzoa aurkeztu zuen. Agiri horretan 11 lege testu baino gehiago biltzen dira eta elkarrekin lotuta dauden eta elkarrekiko osagarriak diren neurriak ezartzen dira EBk 2030erako emisioen gutxitze garbia lortzeko ezarritako %55eko kopurua lortu ahal izateko. Horien artean, hauek nabarmendu behar dira: inportazioen karbono ihesari aurre egiteko Mugako Karbono Doikuntzarako Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren proposamena, Emisio Eskubideen Merkataritza Araubidea ezartzen duen Zuzentaraua berrikusteko proposamena, eta energia eraginkortasunari, energia berriztagarriei eta energiaren fiskalitateari buruzko Zuzentarauen berrikuspenak.

III

Estatu mailan, Klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen xedea da emisio neutraltasuna lortzea, beranduenez 2050erako (Europako legeekin batera, lege honen esparrua ezartzen du). Horretarako, 2030ean, Espainiako ekonomia osoaren emisioak gutxienez %23 gutxitu beharko dira 1990koekin alderatuta.

Halaber, "2050ean Espainiako Ekonomia Moderno, Lehiakor eta Klimatikoki Neutroa izateko Epe Luzerako Estrategian" (aurrerantzean, 2050 ELE) 2050 aurretik estatuko berotegi efektuko gasen emisioak 1990koekin alderatuz %90 gutxitzeko jarraibideak azaltzen dira. Emisioen gainerako %10a karbono hustubideek jasoko dute eta, horrekin, klima neutraltasuna lortuko da.

Bestalde, 2021-2030 eperako Klima Aldaketara Egokitzeko Plan Nazionalaren (aurrerantzean, KAEPN) helburu nagusia klima aldaketaren efektuekiko ekintza

koordinatua eta koherentea sustatzea da. Horrela, klima aldaketaren egungo eta etorkizuneko kalteak saihestu edo gutxituko dira eta ekonomia eta gizarte erresilienteagoak eraikiko dira.

IV

Tokiko eskualde eta erakundeek klima aldaketaren inpaktuak arintzeko neurrien %70 baino gehiago eta egokitzapen neurrien %90 baino gehiago aplikatzen dituzte eta EBko legeria guztiaren %70 baino gehiago aplikatzen dute; beste modu batera esanda, gastu publikoaren heren bat eta inbertsio publikoaren bi heren. Ondorioz, 2050erako klima neutraltasuna lortzeko lanean jarraitu behar da eta hori lortzeko ezinbestekoa da eskualdeen eta tokiko erakundeen laguntza eta lankidetzeta.

2019ko uztailean Euskadik bat egin zuen mundu osoko erakunde politiko, sozial eta akademikoekin klima larrialdiaren adierazpen formala eginez. Karbonoari dagokionez neutroak eta erresilienteak diren lurralde eta gizarteak lortzea da helburua. Halaber, Eusko Legebiltzarrak klima larrialdiaren aurrean asmo handiz eta berehala jarduteko behar diren ekimenak sustatu, bultzatu eta adostuko dituela erabaki zuen.

Euskadik bat egin zuen 2019ko abenduaren 11ko Europako Hitzarmen Berdearekin “Basque Green Deal” delakoaren bitartez, etorkizun jasangarriagoa lortzeko eta inor atzean utzi gabe krisitik ateratzeko helburuarekin.

2021eko urriaren 26an Eusko Legebiltzarrak Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 2021-2024 urteetarako plana onetsi zuen. Honako hauek dira plan horren xedeak: berotegi efektuko gasen emisioak %30 gutxitzea, energia berriztagarriak energiaren azken kontsumoaren %20 izatea eta EAEren klima aldaketarekiko erresilientzia bermatzea.

Euskadik ibilbide luzea du energia, industria eta klima aldaketaren inguruko politikan, eta erreferentziazko eskualde bihurtu da arlo horietan. Euskal ekonomiaren industria izaera sendoa kontuan hartuta (izan ere, industriaren eta industriari lotutako zerbitzu aurreratuen BPGd-rako ekarpena %40 ingurukoa da), industria politika ezinbesteko

tresna da trantsizioa klima neutraltasunera bideratzeko, eta EAeko industria aldatetaren, berrikuntzaren eta hazkunde jasangarriaren azeleragailua eta motorra izatea da xedea.

Horregatik, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioak, energia enpresa nagusiekin lankidetzan eta industriako klusterren laguntzarekin, martxan jarri du “Basque Net Zero Industrial Super Cluster” delakoa; bere helburua eskualdea industriaren deskarbonizazioan aitzindari bihurtzea da, industrian energia kontsumoaren deskarbonizazioa eta energia eraginkortasuna sustatuz eta, aldi berean, garapen teknologikoan eta berrikuntzan oinarritutako merkatu aukerak sortzea. Euskadik bat egin du World Economic Forum (WEF) garatzen ari den programarekin, industria trantsizioa 2050ean zero emisio garbi lortzera sustatzeko helburuarekin.

V

Trantsizio energetikoarekin energiaren sektorea sektore jasangarri bihurtuko da eta zero emisio garbi sortuko ditu. Azken helburua karbonorik gabeko nahasketa energetiko jasangarria eta dibertsifikatua lortzea da eta, horrekin, energia hornidura segurua lortuko da kostu lehiakorarekin. Horretarako, pixkanaka-pixkanaka ezarri behar dira aurrezpeneko eta energia-eraginkortasuneko neurriak, elektrizitatearen sorkuntzan eta erabilera terminoetan energia berriztagarriak txertatu behar dira eta lehenengo sektorea, eraikuntzaren sektorea, industria eta mugikortasun ereduak modu jasangarrian garatu behar dira. Klima neutraltasuna lortzea erakunde, eragile eta sektore ekonomiko, sozial eta politiko guztiei dagokie, azken batean, gizarte osoari.

Sistema elektrikoa baliabide energetiko banatuetan oinarrituta egongo da eta, sistema horretan, aldizkako energia iturri berriztagarriak energia biltegitratzearekin, sare elektriko adimendunen garapenarekin eta elektrizitate kontsumoen kudeaketan jarrera aktiboa izatearekin osatu beharko dira.

Deskarbonizazioa lortzeko, nahitaezkoa izango da elektrizitatearen azken kontsumoaren ehunekoa handiagoa izatea eta sistema elektrikoen, berokuntza sistemen eta garraio sistemen arteko interkonexioa eta integrazioa handiagoak izatea. Halaber, beharrezkoa izango da energia politika klasikoak energia eredia eguneratzeko eta eredu hori ekonomiaren sektore guztietako enpresetara eta kontsumitzaileetara egokitzea errazteko



aukera ematen duten bestelako politikekin konbinatzea. Horregatik, energiaren eta materialen erabileran energia eraginkortasuneko neurri guztiak hartzea eta energia zirkularra sustatzera bideratuko dira jarraibide estrategikoak, ahalik eta aurrezki handienak lortzeko eta lehiakorragoak izateko. Era berean, energia berriztagarriak iturri ez berriztagarrien alternatiba erreal izatea erraztuko da; hau da, erregai fosilen kontsumoa gutxitzea eta zero emisio garbiko ekonomiarako trantsizioa ezartzea, egungo egoeratik batez ere energia berriztagarrietan oinarritutako eredura igarotzeko.

Garraioaren sektorean berehala esku hartu behar da, izan ere, gaur egun Euskadin energia gehien kontsumitzen duen sektorea da. Kontsumoak gutxitzea eta petrolio produktuak erabili orde ingurumena gehiago errespetatzen duten beste batzuk erabiltzea da xedea, mugikortasun jasangarriko eredia ezartzeko.

Ezinbestekoa da proaktiboak izatea energia bektore berriak garatzean, deskarbonizazioan aurrera egitea, trantsizio energetikoaren arloan EAEko administrazioak erreferente bihurtzea jardura sektoreen eta herritarren aurrean eta EAEko industria nazioartean erreferente teknologiko bihurtzea energiaren alorrean ere. Horretarako, berrikuntza jarduerak bideratu eta sustatuko dira balio kate osoan eta balioa emango zaio euskal zientzia eta teknologia sistemari. Halaber, ekonomia zirkularreko estrategiek, bizitza-zikloaren ikuspegia txertatuz, deskarbonizazioaren helburua lortzen lagunduko dute.

VI

2019an, Euskadiko berotegi efektuko gasen emisioak Europar Batasuneko emisio guztien %0,5 izan ziren, eta Euskadiko %86ko emisio nagusiak sortzen dituztenak energia sektorea, garraioaren sektorea eta industria dira. 2005ekin alderatuta, emisioak %27 gutxitu ziren eta BPGd %20 gehitu zen. Horrek esan nahi du emisioen intentsitatea %39 gutxitu zela. Industriaren emisioak %38 gutxitu ziren eta energia sektorearenak %42. Hala ere, garraioaren emisioak %14 gehitu ziren aldi berean.

Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldearen 2018ko txosten berezian proposatutako murrizketei dagokienez, Euskadiko emisioak %14 gutxitu ziren 2010ekin alderatuz, eta 2010-2030 aldiko murrizketa lerroaren azpitik geratu ziren,

temperatura orokorra 2 °C baino gutxiago baina 1,5 °C baino gehiago mugatzeari dagokiona. Beraz, ahalegin handiagoa egin behar da maila horretara iristeko.

Euskadin aurreikusi diren aldaketa nagusiak hauek dira: tenperaturak orokorrean igotzea, prezipitazioen erregimena aldatzea, uraren temperatura berotzea eta itsas maila igotzea. Aldaketa horien tamaina eta garrantzia direla eta, lege hau onetsi beharra dago, eta autonomia erkidegoaren lurralde ordenamendu juridikoan klima aldaketaren aldagaia gehitu behar da, modu horretan, trantsizio energetikorako oinarri egokiak ezar daitezten. Bestalde, nahiz eta trantsizio hori osorik egin eta berotegi efektuko gasen emisioak murriztu, ebidentzia zientifikoak adierazten du klima aldaketak ekidin ezinezko ondorioak sortuko dituela hamarkadetan zehar eta, horregatik, gizarte osoa egokitzeko ahalegina egin behar da eta, bereziki, sistema instituzional eta ekonomikoa egokitzeko ahalegina, epe ertain eta luzean horien ondorioak eta kostuak arintzeko eta lurraldearen erresilientzia lortzeko.

Erronka horri eman beharreko erantzunak esparru juridiko bat behar du eta esparru horrek 2050erako berotegi efektuko gasen emisioen neutraltasuna lortzeko estrategiak eta klima aldaketarekiko erresilienteagoa den lurraldea bihurtzeko ekintza planak eta tresnak definitu eta martxan jarri behar ditu. Horretarako, trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorretan erakunde arteko mekanismoak eta koordinazio organoak aktibatu behar ditu.

VII

Gizarte jasangarria lortzeko aldaketaren prozesuak ingurumen, energia eta gizarte mailako erronka handia sortzen du. Hiru hamarkada inguruan EAEko energia sistema guztiz aldatu beharko da eta EAEko ekonomiaren eta ekoizpen eta produktu eta zerbitzuen kontsumo prozesuen eraldaketa sakona egin. Azkenik, gizarte erabilerak ere egokitu egin beharko dira.

Trantsizio horri esker, ekonomia, enpresa, ingurumen eta gizarte aukera berriak sortuko dira eta EAEko eragileek horiek aprobetxatu ahal izango dituzte ekonomia berri baten eta epe ertain eta luzean lehiakorragoak izango diren euskal enpresen oinarriak finkatzeko, balio ekonomiko handiagoa eta euskal gizartean ongizate maila hobek erdietsiz.

Azpiegiturak, gaitasunak, ekoizpen prozesuak eta prozesu logistikoak, kontsumo moduak eta enpresek eskainitako produktuak eta zerbitzuak egokitu beharko dira karbono aztarna txikiagoa sortzeko eta, modu horretan, eskuragarri dauden baliabideen erabileran ekoizpen eta eraginkortasun etekinak sortzeko eta, horiei esker, EAEko enpresak tokiko, estatuko eta Europako merkatuetan kokatzeko eta lehiatzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da onura jasangarri, ekonomiko eta sozialean oinarritutako enpresa estrategia berriak eta negozio eredu berritzaileak ezartzea.

Gainera, trantsizio energetikoa lortzeko hurrengo hamarkadetan inbertsio handiak egin beharko dira energia eraginkortasunean, kontsumoen elektrifikazioan, energia berriztagarrietan, biltegitarte sistemetan eta hidrogeno berriztagarri eta karbono gutxikoaren ekoizpenean. Inbertsio horiek gure inguruan etekin ekonomiko (jarduera ekonomikoaren eta BPGd-aren terminoetan) eta sozialak (enplegua sortuz) sortzeko, trantsizio energetikoko estrategiak garapen teknologiko eta industrialeko estrategiekin osatu eta babestu behar dira, izan ere, horiei esker energia eta ingurumen inbertsioak enpresa sektoreentzako eta atxikitako balio kateentzako hazkunde aukera gisa aprobetxatuko dira, produktu eta zerbitzu lehiakorrek garatuz, negozio eredu berriak identifikatuz eta enpresen arteko lankidetzak gauzatuz.

Eraldaketa hori guztia egitean, gainera, askotariko energia teknologien eta soluzio eta garapenen arteko oreka lortu beharko da, naturan oinarritutako soluzioak barne. Modu horretan, eskuragarri dauden baliabideak modu eraginkorrean esleituko dira azken xedea kontuan hartuta, hau da, 2030erako nabarmen murriztea berotegi efektuko gasen emisioak Europako helburuen ildotik eta, 2050erako, zero emisio garbi sortzen dituen ekonomia lortzea.

Hala, zientzia eta teknologiaren euskal sistemaren indarra eta eragile publiko eta pribatuen, klusterren erakunde dinamizatzaileen eta erakunde zientifiko eta teknologikoen zeregin dinamizatzailea elementu nabarmenak izango dira. Gainera, Euskadik industria sare indartsu eta lehiakorra, teknologia eta industria ahalmen handiak eta kapital fisikoa eta giza baliabideak eta askotariko sektoreetan ezagutza metatuak ditu, adibidez energetikoan (energia berriztagarriak, sare energetikoak, petrolio eta gasa barne). Bestelako balio kateak ere baditu, hala nola potentziaren elektronika, biltegitarte

edo digitalizazioarekin lotutako zerbitzuen sektorea eta, horiei esker, ez du zerotik lanean hasi behar eta abiapuntua egokia du.

Euskadiko eragileek eta erakundeek harreman hurbila dutenez, lurraldearen ezagutza, gaitasunena eta premia handiagoa denez eta eskualde eta tokiko administrazioen eskumen propioei esker, errazagoa izango da deskarbonizazioaren erronkei erantzun ezin hobe ematea eta klima aldaketaren ondorioetara bizi kalitatean ahalik eta inpakturik txikiena sortuz egokitzea.

Lege honetan ezarritako helburuak betetzeko, euskal administrazio publikoek zuzenean jardungo dute eta aurrezpena, eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarrien ezarpen progresiboa eta eredu energetiko jasangarrirako trantsizioa sustatzen duten irtenbideak eta praktikak bultzatuko dituzte, nagusiki, autosufizientzian, deszentralizazioan, hurbiltasunean eta eskuragarri dauden baliabide energetikoen aprobetxamendu ezin hobe oinarrituta.

Prozesu hori guztia trantsizio bidezkoaren irizpidea betez gauzatu beharko da eta horrek kontuan hartu beharko ditu kostuen eta kargen banaketa bidezkoa, inor atzean utzi gabe eta arreta berezia eskainiz sektore ekonomiko, lurralde eta biztanleria zaugarrienei eta genero, adin edo pertsonen disfuntzioa integratuz, trantsizioa bidegabekeriaren eta desberdintasunen kausa bihurtu ez dadin.

VIII

Lege honi esker modu eraginkorrean Euskadiko errealitateara egokituko dira esparru arauemailea eta nazioarteko konpromisoak, eta zero emisio garbi eta lurralde erresiliente baterako trantsizioa egiteko erabil daitezkeen estrategiak eta tresnak konfiguratuko dira, euskal sozioekonomikoaren errealitatearekin eta datozen urteetako erronka eta aukerekin lerrokatutako plangintza eta ibilbide orri baten esparruan.

Horregatik guztiagatik, lege honek lagunduko du trantsizio energetiko eta klimatiko gauzatzeko erronkari erantzuna ematen eta euskal ekonomiaren lehiakortasun oinarriak mantendu eta hobetuko ditu trantsizio teknologiko, digital eta sozialean oinarrituz.

Lege honen lege babesa EAEko Autonomia Estatutuaren 11.1.a) eta 11.2.c) artikuluetan jasota dago, hurrenez hurren, ingurumen eta ekologiaren alorrean eta energia araubidearen alorrean, lurralde barneko legeria garatzeko eta egikaritzeko, eta 6 kapitulutan egituraturako 48 artikulua ditu.

I. kapitulua xedapen orokorrei buruzkoa da, eta legearen helburua eta xedeak azaltzen dira bertan. II. kapitulua gobernantzari buruzkoa da, eta bertan arautzen dira euskal administrazio publikoek trantsizio energetikoarekin eta klima aldaketarekin lotuta dituzten eskumenak eta zereginak eta koordinazio, lankidetzak eta partaidetzak organoen funtzioen egikaritzea diseinatzen da, arreta berezia jarriz Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoan, laguntza eta sustapen organoa den heinean. III. kapituluan legearen helburuak eraginkor bihurtzeko askotariko plangintza tresnak jasotzen dira, hala nola 2050erako Ibilbide Orria, Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Estrategia eta toki erakundeek eta lurralde historikoek klimaren eta energiaren alorretan dituzten planak. IV. kapitulua bi ataletan banatuta dago eta neutraltasuna sustatzen duten trantsizio energetikoa eta bestelako sektore politikak arautzen dira bertan. V. kapitulua lurraldearen eta euskal gizartearen erresilientzia bermatzeko neurriei buruzkoa da. Azkenik, VI. kapituluan lege honen xedapenak betetzea ahalbidetzen duten zeharkako tresnak diseinatzen dira.

Laugarren xedapen gehigarriaren xedea estalkien gaineko eguzki instalazio fotovoltaikoen izapidetze administratiboa arintzea da.

Lehen azken xedapenak Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea aldatzen du, lurralde historikoetako eta udalerrietako jarduketa energetikoko planen izena lege honetan aurreikusitako klima eta energia planekin bateratzeko.

Era berean, bigarren azken xedapenak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea aldatzen du, Ingurumeneko Aholku Batzordeari dagozkion eginkizunak lege testu bakar batean bateratzeko, lege horren, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen eta lege honetan ezarritakoaren arabera.

Hirugarren azken xedapenak Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legea aldatzen du, alde batetik, Uraren Euskal Agentziako Administrazio Kontseiluari bere langile plantilla onartzeko funtzioa esleituz eta, bestetik, lege horretan aurreikusitako arau hausteen inguruko botere zehatzailearen erabilera berrantolatuz.

Laugarren azken xedapenak unean-unean aldatzen du Euskadiko ondare naturala kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legea, arau hau aplikatzea errazteko xedez.

IX

Arau hau Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua onaren printzipioetara egokitzen da. Hala, premia eta eraginkortasun printzipioen arabera, Euskadin, klima neutraltasuna, beranduenez, 2050ean lortzeko premian justifikatzen da, urte horretatik aurrera berotegi efektuko gasen emisio garbirik egon ez dadin. Horretarako, beharrezkoa izango da energia eta klima trantsizio prozesu zuzen bat abiaraztea. Halaber, proportzionaltasun printzipiora egokitzen da, erregulazioa ezinbestekoa delako helburu hori lortzeko.

Segurtasun juridikoaren printzipioaren arabera, araua bat dator gainerako nazioarteko ordenamenduarekin, Europar Batasunekoarekin, Estatukoarekin, Euskal Autonomia Erkidegokoarekin eta, bereziki, klima neutraltasuna lortzeko esparrua ezartzen duen Europako Klima Legearekin.

Araua egitean, sektoreek eta interesdunek parte hartzeko eta horiei entzuteko izapidea bete da, aplikatu beharreko araudiak ezarrita duen bezala, gardentasun printzipioaren arabera. Halaber, eraginkortasun printzipioa aplikatuz, karga administratiboak eta betebeharrak eta horiei lotutako kostuak, arau honek gehitutakoak, haien xedeak betetzeko behar direnak eta proportzionalak dira, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatuz.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea eta helburuak

1. Lege honen xedea, Europako eta estatuko legeek ezarritakoaren esparruan, gehienez ere 2050ean Euskadin klima neutraltasuna lortzeko esparru juridiko egonkorra ezartzea eta lurraldearen klima aldaketarekiko erresilientzia areagotzea da.

2. Lege honen helburuak dira hauek:

- a) Berotegi efektuko gasak gutxitzeari eta klima aldaketaren efektuetara egokitzeko neurriak ezartzeari buruzko nazioarteko konpromisoak betetzen laguntzea.
- b) Trantsizio energetikoaren prozesua energia aurrezpenaren eta eraginkortasunaren, energia berriztagarrien aprobetxamenduaren eta egungo eredia deskarbonizatzeko aukera ematen duten energia erabilerekin ikuspegitik fokatzeko, horniduraren segurtasuna eta lehiakortasuna bermatzeko.
- c) Deskarbonizazio prozesua sustatzea euskal sektore sozioekonomiko guztietan trantsizio energetikoa erabiliz eta jarduera ekonomikoa, enpresa lehiakortasuna, enpleguaren kalitatea eta gizartearen ongizatea areagotuz garapen jasangarriko eredu baten esparruan, ingurumen, gizarte eta ekonomia jasangarri eta inklusiboaren ikuspuntutatik.
- d) Lurraldearen eta bere erakundearen, enpresen eta gizartearen egokitzeko gaitasuna handitzea, erresilientzia indartuz eta klima aldaketarekiko zaurgarritasuna murriztuz.
- e) Trantsizio energetikoaren aukerak aprobetxatzea garapen teknologiko eta industrialean oinarritutako euskal industriaren lehiakortasuna sustatzeko.
- f) Trantsizio energetikoarekin eta klima aldaketaren inpaktua arintzeko eta aldaketara egokitzeko arloekin lotutako enpresa eta erakunde berrikuntza sustatzea, euskal ekonomiaren lehiakortasuna handitzeko eta ekonomia zirkularragoa lortzeko.
- g) Aldaketa sustatzea trantsizio energetikoa eta digitalizazioa bultzatuz eta norbanako kontsumitzaileak energia sistemaren erdigunean jarriz.

h) Gizartearen prestakuntza eta harmonizazioa bultzatzea finantzaketan, fiskalitatean edo ikerketan, modu horretan, gizarte justizia eta bidezko trantsizioa bermatzeko.

3. Lege honen xedea eta helburuak betetzeko, trantsizio bidezkoa, jasangarria, soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa bultzatuko da, ekitatea eta elkartasuna bermatuko dituena.

2. artikulua.- Printzipioak

1. Lege hau printzipio hauetan oinarrituta dago:

- a) Trantsizio energetikoaren prozesua, eta emisioak arindu eta klima aldaketara egokitzekoa plangintza publikoan txertatzea sektore eta lurralde politiken bitartez.
- b) Administrazio publikoaren ekintza eredugarria eta koordinatua Euskadiren energia eraldaketa lortzeko. Horretarako, trantsizio energetikoa oinarrituz hartuko da karbonoan neutroa eta klima aldaketarekiko erresilientea izango den gizarte lortzeko.
- c) Energiaren eta klima aldaketaren alorreko ekintza, giza garapen jasangarria erdiesteko konpromisoarekin.
- d) Partekatutako erantzukizuna ezartzea eragile publiko eta pribatu guztien artean, trantsizio energetikoko ekintzak garatzeko, klima aldaketaren eragina arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko.
- e) Eraldaketa industrial bultzatzea eta enpresa aukera berriak sortzea.
- f) Ezagutza trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorretan erabakiak hartzeko irizpide gisa txertatzea.
- g) Zuhurtzia eta prebentzio ekintza berotegi efektuko gasen emisioen eta lurraldearen erresilientziaren inguruan.
- h) Energiaren eta klima aldaketaren alorreko ekintza, pertsona guztientzako justizia baldintzak bermatuko dituen benetako ekitatea sustatuz.
- i) Euskadi energia eta klima aldaketaren foroetan egotea, karbonoan neutroa izango den eta klima aldaketari egokituta egongo den ekonomiarako trantsizioa sustatzeko.

- j) Partaidetza publikoa, eta herritarrak informatzea eta hezteko trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren prozesuari dagokionez.
 - k) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, generoen arteko ikuspegia eta gazteen ikuspegia txertatuz trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren arloko politika eta jarduketetan.
 - l) Ingurumena, pertsonen segurtasuna eta osasuna eta herritarren bizi kalitatea, enplegua eta ongizatea babestea, segmentu zaugarrienetan arreta berezia jarritz. Eta trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren ondorioz zaugarriagoak diren enpresen eta landa munduaren lehiakortasun ekonomikoa babestea.
 - m) Lurralde, enpresa eta industria lehiakortasuna sustatzea jasangarritasunaren helburu orokorraren inguruan.
 - n) Administrazio publikoen arteko kolaborazioa eta lankidetzak maila guztietan eta eragile sozioekonomiko, teknologiko eta zientifikoetan.
2. Lege honen printzipioak legea aplikatu behar zaien eragile publiko eta pribatuentzako jarduketa jarraibideak eta interpretazio irizpideak dira.

3. artikulua.- Definizioak

Lege honetan erabili diren kontzeptuen definizioak eranskinean jasota daude.

II. KAPITULUA GOBERNANTZA

4. artikulua. Euskal administrazio publikoen jarduketa printzipioak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, bere erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, sozietate publikoek, sektore publikoko fundazioek eta partzuergoek; lurralde historikoen administrazioak; eta toki-administrazioak lege honetan aurreikusitako zereginak gauzatuko dituzte, bere eduki eta irismenarekin eta kasu bakoitzean eraginpekoak izan litezkeen alor edo sektore bakoitzari aplikatu beharreko gainerako erkidegoetako eta estatuko araudian ezarritako eskumen banaketarekin eta zereginekin.
2. Euskal administrazio publikoek trantsizio energetikoa eta klima aldaketa integratuko dituzte beraien eskumenak egikaritzuz kudeaketa eremu guztietan eta lege honen xedea betetzea sustatuko dute garatzen dituzten sektore politiken, planen eta programen bitartez.
3. Lege honetan esleitutako eskumenak eta funtzioak euskal administrazio publikoek egikaritzuko dituzte, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 5. Artikuluan jasotako printzipioekin edo hura ordeztzen duen arauarekin bat etorrituz.
4. Euskal administrazio publikoek bermatuko dute Lege honetan aurreikusitako askotariko gobernantza organoak osatuko dituzten kideen artean emakume eta gizonen arteko presentzia orekatua egongo dela, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak edo hura ordeztzen duen arauak ezarritakoarekin bat.

5. artikulua. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren batzordeak

1. Lege honen helburuak lortzeko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, lurralde historikoetako administrazioen eta toki administrazioen arteko barne koordinazioa, lege honek xede dituen helburuak lortzeko, Energia Jasangarritasunaren Batzordeak edo antzeko ezaugarriak eta zereginak dituzten erakundeak gauzatuko dute, Euskal Autonomia Erkidegoaren Energia Jasangarritasunaren otsailaren 21eko 4/2019 Legeko 9. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Lege honen xedearekin eta helburuekin koherentzian, legea indarrean jartzen den unean existitzen diren Energia Jasangarritasunaren Batzordeak aurrerantzean Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzordeak deituko dira.

3. Otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusitakoez gain, lurralde historiko eta toki administrazioetako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzordeen edo antzeko ezaugarriak eta zereginak dituzten erakundeen zereginak izango dira:
 - a) Bere eskumenen alorrean, lurralde historikoetako administrazioen eta toki administrazioen jarduketak koordinatzea, horiei lotuta dauden edo horien menpekoak diren erakundeak barne, trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorrean.
 - b) Lurralde historikoen eta toki administrazioen eskumenekoak diren eta lege honetan aurreikusita dauden plangintza tresnak onetsi aurretik derrigorrezko txostenak egitea eta helburuak betetzen diren edo ez ebaluatzea.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzordeak, alor hauetan, honako funtzio hauek beteko ditu, gutxienez:
 - a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren jarduna koordinatzea, trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorrean horri lotuta dauden edo horren menpekoak diren erakundeak barne.

- b) Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorraren eskumenekoak diren eta Lege honetan aurreikusita dauden plangintza tresnak onetsi aurretik derrigorrezko txostena egitea eta helburuak betetzen direla ebaluatzea.
 - c) Erregelamendu proiektuen proposamenak eta Lege honen helburuekin lotutako bestelako tresnak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea.
 - d) Trantsizio energetikoari, klima aldaketaren inpaktua arintzeari eta aldaketara egokitzeari buruzko proposamenak Gobernu Kontseilura gobernura eramatea.
 - e) Urtean behin, Lege honen helburuak lortzeko, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak trantsizio energetikorako eta klima aldaketarako erabili beharreko aurrekontua zein den proposatzea.
 - f) Koordinazioa bermatzea, adierazleak eskura izateko behar den informazioa modu harmonizatuan jasotzeko, eta trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren plangintza tresnen jarraipen eraginkorra egitea.
5. Reglamentariamente se detallará la composición de la Comisión de Transición Energética y Cambio Climático de la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco, garantizando la representación equilibrada de mujeres y hombres.

6. artikulua. Erakundeen arteko koordinazioa trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorrean

1. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorrean egin beharreko erakundeen arteko koordinazioa Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren esku egongo da.
2. Aurreko atalean aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluari dagokio funtzio hauek betetzea:
 - a) Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorrean txostenak, irizpenak eta proposamenak egitea.
 - b) Lege honetan aurreikusitako helburuak eta plangintza tresnak betetzearen bilakaera aztertzea, 14.1 artikuluan aurreikusitako jarraipen-txostenean oinarrituta.



- c) Koordinazio neurriak proposatzea trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren jarduketak eraginkorrak izan daitezen.
 - d) Legez edo erregelamendu bidez egotz lekizkiokeen gainerako zereginak gauzatzea.
3. Lehendakariaren Dekretu bidez izendatuko dira, hurrenez hurren, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren arloetan ordezkari izango diren bi pertsona.

7. artikulua. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa

1. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren euskal bulegoa sortu da eta Eusko Jaurlaritzaren energia eta klima alorretan eskuduna den sailari atxikitako organo teknikoa izango da. Bulegoak hurrengo atalean adierazitako zereginak gauzatuko ditu eta, horretarako, energiaren eta klima aldaketaren alorrean eskuduna den saileko bitarteko teknikoak eta giza baliabideak eskuragarri izango ditu energiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko klima aldaketaren, uraren eta industriaren erakunde publikoen bitartez, beste erakunde publiko batzuekin koordinatzearen kalterik gabe.
2. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren euskal bulegoak honako zeregin hauek izango ditu:
- a) Lege honetan aurreikusitako plangintza tresnetan ezarritako helburuen eta jarduketaren jarraipena egitea.
 - b) Trantsizio energetikoaren prozesuaren jarraipena egitea, eta, bereziki, prozesu honekin lotutako energia eta sektore adierazle nagusia.
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoko berotegi efektuko gasen inbentarioa eta berotegi efektuko gasen emisioen proiektzioa egitea.
 - d) Informazioa biltzeko metodo bat ezartzea, eta klima aldaketaren inpaktuak arintzeko eta aldaketara egokitzearen, gobernantzaren eta inpaktu sozioekonomikoaren adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen jarraipena egitea.
 - e) EAEko klima egoerak ezartzea. Horiek erreferentziazat hartuko dira Lege honetan aurreikusitako plangintza tresnak sortzeko eta, hala, alor horretan sortuko diren ezagutza aurrerapenen arabera eguneratuko dira.

- f) Ezinbesteko adierazleak identifikatzea eta bilakaera eta joerak interpretatzeko datu historiko lagungarriak eskuratzea, horrela, lurraldearen eta bertan garatzen diren jardueren gaineko arriskuak gutxitzeko erabaki eraginkorragoak hartzeko.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoan klima aldaketaren zaurgarritasunaren eta arriskuen ebaluazioa egitea, egokitzapenerako lehentasunezko ekintza eremuak identifikatzeko.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren testu arauemaileak eta aurrekontuak ebaluatzea trantsizio energetikoaren eta klimatikoaren ikuspegitik, eta horietan kontuan hartu beharreko neurriak.
- i) Eragile ekonomiko eta sozialekin informazio, prestakuntza eta komunikazio bideak ezartzea, Lege honetan aurreikusitako plangintza tresnen edukiekin lotuta.
- j) Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sareari atxikitako zentroekin eta ikerketan espezializatutako gainerako erakundeekin komunikazio bide eta lan lerro iraunkorrak ezartzea
- k) Hedapen jarduerak sustatzea, komunikabideen eta sare sozialen bitartez, herritarrei energiaren eta klima aldaketaren alorreko informazio gardena, arduratsua, inklusiboa eta ez-sexista helarazteko.
- l) Koordinazioa babestea eta Eusko Jaurlaritzako Sailen, lurralde historikoen eta tokiko administrazioen arteko zeharkako jarduketak sustatzea, deskarbonizazioa eta klima aldaketarekiko egokitzapena eta erresilientzia lortzeko.
- m) Energia eta klima aldaketaren politiken eta berrikuntza politiken arteko harremanaren jarraipena egitea eta, bereziki, EnergiBasque, energiaren alorreko Estrategia Teknologiko eta Garapen Industrialarena, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarena.
- n) Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren behaketaren euskal sistema kudeatzea, informazio propioa eta beste erakunde batzuk sortutakoa integratzeko eta, erabakiak hartzerakoan, Euskadiko trantsizio energetikoari eta klima aldaketak dituen inpaktuei, zaurgarritasunari eta arriskuei buruzko ezagutza txertatzeko.
- o) Eta lege honetako helburuak lortzeko agindu dakizkiokeen beste edozein zeregin.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoaren osaera eta kideak izendatzeko prozedura, emakume eta gizonen arteko ordezkariak orekatua bermatuz, eta antolamenduko eta funtzionamenduko oinarriko arauak.

8. artikulua. Partaidetza publikoa

1. Las administraciones públicas vascas fomentarán en el ámbito de sus competencias la participación activa de la ciudadanía garantizando de manera activa el objetivo de igualdad de mujeres y hombres y, en especial, la participación de la juventud. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen alorrean, herritarren partaidetza sustatuko dute eta modu aktiboan bermatuko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta, bereziki, gazteen parte hartzea.
2. Eusko Jaurlaritzak trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren arteko gizarte hitzarmena ezartzea sustatuko du, lege honen helburuak eta bertan aurreikusitako plangintza tresnak garatzen laguntzeko.
3. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorreko politika diseinatzeko eta horren jarraipena egiteko parte hartze publikoa, artikuluko 5. atalean aurreikusitakoarekin egituratzeaz gain, Ingurumeneko Aholku Batzordearen bitartez egituratuko da eta bera izango da euskal administrazio publikoen eta gizarte, ekonomia eta ezagutzaren sektoreen arteko harremanetarako eta parte hartzeko organo ordezkaria.
4. Ingurumeneko Aholku Batzordeak zeregin hauek izango ditu trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorrean:
 - a) Lege honetako legearen eta plangintza tresnen betetze mailaren bilakaera aztertzea.
 - b) Jarduketa proposamenak egitea politika energetikoen eta klimatikoen alorrean.
5. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorrean herritarren parte hartzea sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Hiritarren Batzarra eratuko du, dekretu bidez arautuz bere osaera, antolamendua eta funtzionamendua Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 19. artikuluko edo hura ordeztzen duen arauak ezarritakoarekin bat.

Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeek Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean edo hura ordezten duen arauan araututako tresna eta bideen bidez sustatu ahal izango dute parte hartze publiko hori.

Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeek parte hartze publikoko prozesuetan lortzen diren informazioa eta ondorioak trukatzea eta zabaltzea erraztuko dute.

6. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren batzordeek edo udalerrietan sor litezkeen antzeko ezaugarriak erakundeek herri batzarretan edo bestelako elkarte eta erakundeetan sortzen diren ekarpenak aztertuko dituzte eta urtean behin ondorioak bidaliko dituzte; ekarpen horien xede den eremuan eskumenak dituzten organoek aztertuko dituzte ondorio horiek.

9. artikulua. Lankidetzaren trantsizio energetikoaren eta klima aldaketan

1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek beste autonomia erkidego, eskualde eta mugaz harandikiko erakunde batzuekin lankidetzan jardungo dute trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren ekimenak sustatzeko.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak lehentasunezko eremuetan herrialdeen eta eskualdeen arteko kolaborazioa eta lankidetzaren indartuko ditu lehentasunezko zatietan jotzen diren alorretan, esaterako, klima aldaketaren inpaktua arintzearekin, klima aldaketara egokitzearekin, teknologien garapenarekin edo transferentziarekin edo prestakuntzarekin lotura duten alorretan.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak nazioarteko sareetako lankidetzaren eta trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorretan esperientziak partekatuzko foroetan parte hartzea sustatuko ditu.
4. Euskal administrazio publikoen garapenerako lankidetzaren planek eta programek zeharka eta zuzentasunez jaso beharko dituzte trantsizio energetikoa eta klima aldaketa.

III. KAPITULUA

TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN PLANGINTZA

10. artikulua.- Plangintzarako tresnak

1. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren plangintza honako tresnen bitartez gauzatuko da:
 - a) Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren 2050erako ibilbide orria.
 - b) Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren estrategiak.
 - c) Lurralde historikoen eta toki erakundeen klima eta energia planak.
2. Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, planek trantsizio energetikoko ekimenak jasoko dituzte emisioak gutxitzeko eta egokitzapen neurriak eta garapen teknologikoko jarduketak ere izango dituzte ekonomia eta enplegua sustatzeko. Hala, klimaren helburuak trantsizio energetikoaren estrategiarekin eta politika industrialarekin lotuta egongo dira.

11. artikulua. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren 2050erako ibilbide orria

1. Lege honen xedea betetzeko, erritmoa ezarri beharko da eraldaketa prozesuan, nazioarteko, Europako eta estatuko zuzentarauekin bat etorriko dena eta Euskadiko testuinguru sozioekonomikora egokituko dena.
2. Eusko Jaurlaritzak, energia eta klima aldaketaren alorreko sail eskudunak proposatuta, Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren 2050erako ibilbide orria onetsiko du artikuluko honetako 1. parrafoan aurreikusitako xedek betetzeko, Administrazio Orokorreko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzordeak, Toki Politikako Euskal Kontseiluak eta Ingurumeneko Aholku Batzordeak txostena egin ondoren.

3. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren 2050erako ibilbide orria ezagutza teknologikoan eta zientifikoan oinarrituta sortuko da eta horren bitartez finkatuko da klima neutraltasuna, lurraldearen erresilientzia eta trantsizio bidezkoa lortzeko bidea, eta hori guztia Euskadiko testuinguru sozioekonomikoa kontuan hartuta. Edukian kontuan hartu beharreko alderdien artean, hauek daude: mitigazio eta energia jarraibideak eta helburuak, egokitze sektore eta estrategiak, eragindako kolektiboak eta bidezko trantsiziorako neurriak, teknologia eta enpresentzako garapenerako aukerak eta inbertsioak.
4. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren 2050erako ibilbide orria berrikusi eta eguneratu egin beharko da hala dagokionean, lortzen diren aurrerapen teknologikoekin, 12. artikuluko plangintza aldiekin eta nazioartean hartzen diren konpromiso berrieekin bat etorriz.

12. artikulua.- Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren estrategiak

1. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren estrategiak Lege honen helburuak betetzea ahalbidetzen duten planen, estrategien eta politiken esparru integratua eta zeharkakoa dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren politikaren tresna orokorra ere.
2. Eusko Legebiltzarrak Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren 2030erako Estrategia eta ondorengo Trantsizio ekologikoaren eta klima aldaketaren estrategiak onetsiko ditu, energia eta klima aldaketaren alorretan eskuduna den sailak proposatuta, eta Administrazio Orokorreko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzordeak, Tokiko Politiken Euskal Kontseiluak eta Ingurumenaren Aholku Batzordeak txostena egin eta gero.
3. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren estrategiak 10 urte baino gutxiagoko aldizkakotasunarekin egingo dira 2050erako ibilbide orrian, ezagutza zientifikoaren aurrerapenetan eta legeriaren bilakaeran oinarrituz, eta helburu kuantitatibo eta sektorialak eta horiek lortzeko beharrezko jarduketak, tresnak eta baliabideak proposatuko dituzte.

4. Hauxe izango da, gutxienez, Trantsizio ekologikoaren eta klima aldaketaren estrategien oinarritzko edukia:
- a) Jarduketa esparruak.
 - b) Egoeraren diagnostikoa eta joerak.
 - c) Estrategiaren helburuak, lerroak eta neurriak ezarritako epemugarako, honako alor hauetan: emisioak arintzea, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak, klima aldaketara egokitzea, energiaren eta klima aldaketaren gaineko garapen teknologiko industrialak eta trantsizio bidezkoa.
 - d) Energia eta klima aldaketaren alorretako zeharkako tresnak, honako gai hauekin lotuta:
 - Trantsizio bidezkorako mekanismoak.
 - Ekonomia, finantza eta zerga alorreko mekanismoak.
 - Tresna arauemaile berriak.
 - Ikerketa, garapen eta berrikuntza lerroak.
 - e) Jasangarritasunaren aldeko komunikazio, parte hartze eta hezkuntza alorretako jarduketa ildoak.
 - f) Nazioarteko lankidetzak sustatzeko zuzentarauak.
 - g) Behar diren inbertsioak eta bestelako baliabideak.
 - h) Estrategiaren ebaluazio eta jarraipen sistema.
 - i) 2050erako ibilbide orriaren berrikuspena.
5. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren estrategien bidez neurriak, tresnak, arauen garapenak, finantzaketa mekanismoak eta laguntza eta zerga programak sartuko dira eskualdeei, sektore ekonomiko edo industrialei edo bereziki kaltetutako biztanleria segmentu jakinei laguntzeko, trantsizio energetiko eta klima trantsizio bidezkoa, inklusiboa, soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa lortzeko helburuarekin.
6. Neurriak ekoizpen prozesuak eta enpresa eta industria jarduerak dibertsifikatzera eta horiek merkatuan lehiakorren diren eta karbono aztarna txikia duten eta enplegua eta klima aldaketarekiko biztanleria sektore zaugarrienak babesten dituzten jarduerak bihurtzera bideratuta egongo dira.

13. artikulua.- Lurralde historikoen eta toki erakundeen klima eta energia planak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako eta toki erakundeetako administrazio guztiek energiarekin, emisioak arintzearekin eta klima aldaketara egokitzearekin lotutako planak jaso beharko dituzte beraien eskumeneko sektore eta lurralde plangintzako jarduketetan. Horretarako, kontuan hartuko dituzte kontsumo energetikoaren ezaugarriak, berotegi efektuko gasen emisioak, karbono isurbideak eta klima aldaketaren arriskuak.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoen eta 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek, beraien eskumenak betez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Energia Jasangarritasunaren otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoa jasotzen duten klima eta energia planak onartu beharko dituzte eta, plan horiek osatzeko, klimaren aldagaia sartu beharko dute emisioak arintzearen eta klima aldaketara egokitzearen ikuspuntutik, Lege honen xedearekin eta edukiarekin bat eginez.

Plan horiek trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren euskal estrategien helburuei ekarpenak egingo dizkiete eta, gutxienez, helburuok aldatzen direnean berrikusi beharko dira. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek bakarka edo eskualdeka egin ahal izango dituzte planak.

3. Energiaren eta klima aldaketaren alorrean eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailak gida bat prestatuko du EAEko udalerriek klima eta energia planak egiteko erabili beharko dituzten tresnak eta metodologiak zehazteko.

14. artikulua. Ebaluazio eta jarraipen sistema

1. Energiaren eta klima aldaketaren alorrean eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren sailak helburuen, programen, jarduketan eta adierazleen betetze mailari buruzko jarraipen eta ebaluazio txostena egingo du eta, hala dagokionean, horiek betetzeko gomendioak eta neurri berriak proposatuko ditu.
2. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren estrategien aldi bakoitzaren indarraldia bukatu ondoren, energia eta klima aldaketa alorrean eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailak helburuen, jarduketan eta adierazleen betetze mailaren azken

txostena egingo du eta, hala badagokio, hurrengo plangintza aldirako gomendioak emango ditu.

3. Jarraipen, ebaluazio eta gomendioen txosten horiek gainerako euskal administrazio publikoek egiten dituzten ekarpenak jaso beharko dituzte eta herritar guztien eskura jarriko dira.

IV. KAPITULUA

KLIMA NEUTRALITASUNA

1. SEKZIOA

TRANSIZIO ENERGETIKOA

15. artikulua. Trantsizio energetikoaren zuzentarau orokorrak

Klima neutraltasunerako trantsizio energetikoa honako zuzentarau orokor hauen arabera gauzatuko da:

- a) Enpresek, etxeek, euskal administrazio publikoek eta gainerako kontsumitzaileek eraginkortasun energetikoaren, ekoizpen elektrikorako eta termikorako energia berriztagarrien eta mugikortasun jasangarriaren alorretan sektorean ezarriko diren betebeharrak bete beharko dituzte.
- b) Euskal administrazio publikoek nagusiki energia berriztagarrien iturrietatik sortutako bektore teknologiko berriak babestuko dituzte.
- c) Euskal administrazio publikoek energia elektrikoa eta termikoa biltegitratzeko proiektuak sustatu eta bideratuko dituzte eta CO₂ jaso eta biltegitratzea bultzatzen duten ekimenetan parte hartuko dute.
- d) Garraio sareak eta elektrizitatea eta gas naturala banatzeko sareak eraldatu beharko dira (hidrogeno berriztagarri eta karbono gutxikoa edo bestelako gas berdeak txertatu ahal izatea barne) eta sare adimendun eta planifikatuak bihurtu beharko dira eraginkortasuna eta horniduraren segurtasuna hobetzeko eta produktu eta zerbitzu berriak gehitu ahal izateko.
- e) Karbono gehiago duten erregaiak ordeztzea, besteak beste, garraio astunean eta itsas garraioan, eta horien ordeztzea energia berriztagarriak edo trantsiziokoak ezartzea, deskarbonizazio prozesuan aurrera egiteko.
- f) Euskal administrazio publikoek finantzaketa tresnak sortuko dituzte jarduera ekonomikoko sektore guztietan energia eraginkortasuneko proiektuak sustatzen laguntzeko eta energia berriztagarriak eta garraio eraginkor eta jasangarria ezartzeko.

16. artikulua. Energia eraginkortasuna

1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak energia kontsumitzaileak diren sektore guztietan eta ekoizpen sektoreetan energia eraginkortasuna eta eskariaren kudeaketa sustatu eta erraztuko ditu.
2. Produktibitatea eta zerbitzu prestazioa handitzen dituzten enpresa estrategiak eta negozio eredu berritzaileak sustatuko dira eta energia eraginkortasuna eta materialen eta denboraren erabilerearen eraginkortasuna elkartuko dira.
3. Energia eraginkortasuna hobetzeko ekimenak eta proiektuak sustatzen dituzten mekanismoak martxan jartzea bultzatuko da.
4. Aurrekoak betetzen direla bermatzeko neurriak proposatuko dira, araubide, ekonomia, informazio eta komunikazio motako neurri alternatiboak barne; horiek guztiak sektore kontsumitzaile publiko eta/edo pribatuek egikaritu beharko dituzte.

17. artikulua.- Energia berriztagarriak

1. Euskadin energia berriztagarrien ekoizpena handitzeko helburuak bete beharko dira, eta handitze hori modu ordenatu eta planifikatuan eta lurraldeko ingurumen balioak kontserbatuz egingo dela bermatu beharko da.
2. Euskadiko energia berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala prestatzeak eta onartzeak energia berriztagarri termiko nahiz elektrikoak modu antolatuan garatzen direla bermatzeko balio beharko du, ingurumena eta natura ondarea zaintzeko irizpideei eta irizpide tekniko, ekonomiko eta soziolaboralei erreparatuz. Modu horretan, prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek bermeekin kudeatu ahal izango dituzte proiektuen izapidetze eta ezarpen prozesuak.
3. Lurralde mailan, euskal administrazio publikoek antolamendu araudiak eta planak onetsiko dituzte, energia berriztagarrien erabilera sustatuz, itsasoko energia berriztagarriak barne. Araudi eta plan horiek bateragarriak izango dira natura ondarea

errespetatzen duen industria eta gizarte garapen orekatuarekin eta lurralde eta ingurumeneko ezarpen jasangarriarekin.

4. Administrazio publikoak instalazio berriztagarriak sustatuko ditu, nagusiki autokontsumorako instalazio txikiak, eta teknologia horien garatzeko finantzaketa eta partaidetza mekanismoak ezarriko ditu, proiektu berritzaileetan ekimen pribatuari lagunduz edo zuzenean inbertsio propioak eginez.
5. Euskal administrazio publikoek erkidego energetikoak sustatuko dituzte energia berriztagarrien aprobetxamendua hurbiltzeko, eremu zaurgarrienetan arreta berezia jarritz, eta energia berriztagarrien proiektuetan herritarrek parte hartzea sustatzeko.
6. Administrazioak, bere eskumenen alorrean, energia elektriko eta termiko berriztagarrien biltegiatze sistemak garatzea eta ezartzea sustatuko du, bereziki erkidego energetikoen esparruan eta ibilgailu elektrikoen arloan.
7. Euskal ekonomiaren deskarbonizazio prozesuan aurrera egiteko, erregai alternatibo berriztagarriak sortzea bultzatuko da, horien ezaugarri teknikoak, ingurumenean duten eragin txikia eta bideragarritasun ekonomikoa kontuan hartuta.

18. artikulua.- Mugikortasun jasangarria

1. Euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, mugikortasun jasangarriagoa sustatuko dute. Horretarako, oinezkoen eta txirrindularien mugikortasun aktiboa, garraio publikoa eta garraiobide eraginkorragoak eta gutxiago kutsatzen dutenak bultzatuko dituzte energia aurrezpen eta eraginkortasunaren, produktuaren, ondasunaren edo zerbitzuaren kostuaren eta bizitza erabilgarriaren irizpideei jarraituz eta garraioaren deskarbonizazioa bultzatzen duten energia alternatiboak erabiliz.

Euskal administrazio publikoek mugikortasun jasangarriko planak sortu eta garatuko dituzte eta horietan txertatuko dituzte lege honetako printzipioak, emisioak gutxitzeko helburuak zehaztuz.

2. Euskal administrazio publikoek garraiobide eraginkor eta jasangarriagoak garatzea sustatuko dute. Horiek teknologia garbiko ibilgailuak erabiliko dituzte eta modalitate aniztasuna eta intermodalitatea sustatuko dira, herritaren premiei erantzungo dieten mugikortasun alternatiboekin eta mugikortasun zerbitzuekin bizikidetzan. Halaber, emisio gutxiago sortzen dituzten garraiobideak bultzatuko dituzte, kudeaketa sistemak hobetuko dituzte eta garraio publikoaren erabilera, gidatze eraginkorra, trakzio eta motor sistemetako teknologia berriak, energia alternatiboen erabilera eta teknologia digitalak sustatuko dituzte.
3. Euskal administrazio publikoek garraio jasangarria sustatzen jarraituko dute, eta horretarako ibilgailuak berrituko dituzte eta, pixkanaka-pixkanaka, ibilgailuetan energia alternatiboak erabiltzen hasiko dira.
4. Karga eta erregai hornidurako askotariko azpiegiturak hedatuko dira eta, pixkanaka-pixkanaka, mugikortasunaren konektibitatea eta digitalizazioa ezarriko dira.
5. Euskal administrazio publikoek modu aktiboan jokatuko dute garraio sektorean sortuko diren aldaketetan, bai teknologiari dagokionez bai eskaintzan eta eskaeran sortu daitezkeen aldaketei dagokienez. Halaber, mugikortasunaren balio kateko esparru eta maila guztietan negozio eredu berriak txertatzea erraztuko dute.
6. Portuetan jatorria eta helmuga duten tren azpiegiturak garatzea sustatuko da ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko eta bidaiarien eta salgaien garraioaren deskarbonizazioa errazteko.
7. Euskadi alor honetan Europa mailan erreferente izatea ahalbidetuko duen garraio lehiakor eta jasangarria lortzeko behar diren politikak definitu eta koordinatuko dira.
8. Bidaiarien garraio publikoaren sare koordinatua eta integratua eta azpiegitura logistiko multimodalen sarea garatzea sustatuko da eta garraiobide jasangarrienak erabiltzea bultzatuko da, bereziki, trenbide sistema.

9. Euskal administrazio publikoek garraioaren erabilera eraginkorra sustatuko dute eta gizartea kontzientziatuko dute garraio jasagarria beharrezkoa dela hainbat ikuspuntutatik: gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspuntutik, hain zuzen ere.

10. Kolektibo zaugarrientzako garraio alternatiboak garatzeko neurriak bultzatuko dira.

2. SEKZIOA

NEUTRALITASUNA SUSTATZEN DUTEN BESTELAKO SEKTORE ETA LURRALDE POLITIKAK

19. artikulua. Ekonomia zirkularra

1. Euskal administrazio publikoek beraien eskumenak betez hartzen dituzten neurriek, ekonomia zirkularraren alorrean kontuan izan beharko dute bizitza-zikloaren ikuspegia berotegi efektuko gasen emisioak gutxitzea sustatzeko. Neurri horiek helburuak honako hauek izango dira:
 - a) Klimatikoki neutroa den ekonomiara eraldatzeko prozesuari zorrozki lotutako jarduera, industria eta merkatu berriak garatzea, produktuen balioari eusteko, beren bizitza baliagarria luzatzeko, erabilera optimizatuko ereduak izateko edo bizitzaren amaierara iritsitakoan lehengo balioa berreskuratzeko.
 - b) Industria jarduerari laguntzea ekonomia zirkularra beraien prozesuetan txertatzen.
 - c) Lehengaien ordez azpiproduktuak edo hondakinen balorizazioaren bidez lortutako bigarren mailako lehengaiak erabiltzea sustatzea, ekonomia zirkularra bideratuz.
 - d) Hondakin gutxiago sortzea eta hondakinen kudeaketa eta balorizazioa optimizatzea.
 - e) Hiri hondakinen gaikako bilketa gehitzea, bereziki, materia organikoarena eta plastikozko ontziena.
 - f) Zabortegietan hondakin biodegradagarri gutxiago uztea.
 - g) Hondakinak bildu eta garraiatzeko ereduak ezartzea, prozesuan berotegi efektuko gasen emisioak gutxitzea txertatuz.
 - h) Hondakinak eta hondakin urak kudeatzeko instalazioetan berotegi efektuko gasen emisioak gutxitzeko eta biogasa aprobeatzeko neurriak ezartzea.
 - i) Finantzaketa lerroetan eta egin beharreko izapideetan proiektu jasangarri, zirkular eta karbonoan neutroak direnak lehenestea.

2. Hondakinak kudeatzeko eta urak tratatzeko instalazioetan karbono aztarna kalkulatu eta plan bat izan beharko dute sortzen dena gutxitzeko, aztarnarik egon ez dadin edo, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero, negatiboa izan dadin. Erregelamendu bidez ezarriko dira betebeharrak horren eraginpeko instalazioak, karbono aztarnaren kalkularen irismena, planaren gutxieneko edukia, plana idazteko epea eta eguneratzeen maiztasuna.

20. artikulua. Industria jarduerak

1. Euskal administrazio publikoek, industria jardueren alorreko eskumenak betetz, ezartzen dituzten plangintzarekin eta neurriekin, berotegi efektuko gasen emisioak pixkanaka-pixkanaka murriztea sustatuko dute. Jarduketa horien helburuak hauek izango dira:
 - a) Energia eraginkortasun eta deskarbonizazioa sustatzen duten energia berriztagarrien edo bestelako energia bektoreen erabilera eta ezarpena bultzatzea, egungo industria sarea eraldatzeko.
 - b) Trantsizio energetikoaren eta klimatikoaren aukerak aprobetxatzea balio erantsi handiko industria eta ekonomia jarduera berria sortzeko.
 - c) Prozesuetan ekonomia zirkularra txertatzea energia kontsumoa gutxitzeko eta lehengaien erabilera eta karbono aztarna murrizteko.
 - d) Ingurumen ziurtagiriak sustatzea, zehazki, karbono aztarnaren ziurtagiria erakundeen kasuan eta ingurumen aztarnarena produktu eta zerbitzuen kasuan.
 - e) Degradatutako lurzorua industria erabileretarako berreskuratzea eta birsortzea.
 - f) Laguntza programen bitartez sektoreari laguntzea, bere jardueran emisioak murrizten laguntzeko.
 - g) Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzea industria garapeneko alorretan, trantsizio energetikorako eta klimatikorako soluzioak bidera ditzaten.
2. Industria garapen berriak eraldatzean, berrantolatzean, sustatzean eta sortzean trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren ikuspuntua gehitu beharko da eta, zehazki, beren bizitza erabilgarrian zuzenean edo zeharka sortu ditzaketan berotegi efektuko gasen emisioak kontuan hartu eta horiek murrizteko edo konpentsatzeko neurriak ezarri.

3. Euskal administrazio publikoek industria sektoreetan ezagutza indartzea bermatuko dute, ekonomiaren deskarbonizazioan aurrera egiteko.
4. Euskal administrazio publikoek epe luzeko plan sektorialak sustatuko dituzte.
5. Industria instalazioek karbono aztarna kalkulatu eta plan bat egin beharko dute sortzen dena gutxitzeko, aztarnarik egon ez dadin edo, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero, negatiboa izan dadin. Erregelamendu bidez ezarriko dira betebeharrak horren eraginpeko instalazioak, karbono aztarnaren kalkularen irismena, planaren gutxieneko edukia, plana idazteko epea eta eguneratzeen maiztasuna.

21. artikulua. Merkataritza, turismo eta zerbitzuen sektoreko gainerako azpisektoreetako jarduerak

1. Euskal administrazio publikoek merkataritza, turismo eta beste zerbitzuen jardueren alorreko eskumenak betez ezarritako plangintzarekin eta neurriekin berotegi efektuko gasen emisioen murrizketa progresiboa sustatuko dute. Jarduketa horien helburuak hauek izango dira:
 - a) Eraginkortasun energetikoa sustatzea eta energia berriztagarriak erabiltzea eta ezartzea.
 - b) Ingurumen ziurtagiriak sustatzea.
 - c) Sektorea bultzatzea bere jardueran emisioak gutxitzea errazten duten programen bitartez.
 - d) Tokiko eta hurbileko merkataritza sustatzea.
2. Merkataritza, turismo eta beste zerbitzu batzuen garapen berriak birgaitzean, berrantolatzean, sustatzean eta sortzean trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren ikuspuntua gehitu beharko da eta, zehazki, bizitza erabilgarrian sortu ditzaketen berotegi efektuko gasen emisioen ikuspuntua, eta horiek murrizteko edo konpentsatzeko neurriak ezarri beharko dira.

3. Euskal administrazio publikoek turismo jasangarria sustatzeko neurriak ezartzen direla bermatuko dute. Beste ekintza batzuen artean, ingurumen ziurtagirien erabilera bultzatuko da turismo jarduera eta establezimenduetarako.
4. Euskal administrazio publikoek merkataritza, turismo eta beste zerbitzu batzuen sektoreetako ezagutza indartzen dela bermatuko dute, ekonomiaren deskarbonizazioan aurrera egiteko.
5. Merkataritza, turismo eta zerbitzuen sektoreko gainerako azpisektoreen establezimenduek karbono aztarna kalkulatu eta plan bat egin beharko dute sortzen dena gutxitzeko, aztarnarik egon ez dadin edo, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero, negatiboa izan dadin. Erregelamendu bidez ezarriko dira betebeharrak horren eraginpeko instalazioak, karbono aztarnaren kalkuluaren irismena, planaren gutxieneko edukia, plana idazteko epea eta eguneratzeen maiztasuna.

22. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza, baso eta arrantza jarduerak

1. Euskal administrazio publikoek nekazaritza, abeltzaintza, baso eta arrantza jardueretan dituzten eskumenen esparruan ezarritako plangintzak eta neurriek berotegi efektuko gasen emisioak gutxitzea eta hustubide gaitasuna handitzea sustatuko dute. Jarduketa horiek helburu hauek izango dituzte:
 - a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza alorretan erabiltzen diren makinaren energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera eta ezarpena sustatzea.
 - b) Baliabide naturalak eta ekosistemen zerbitzuak babesten dituzten, karbonoa atxikitze gaitasuna bultzatzen duten, emisioak eta ur kontsumoa murrizten dituzten, ekonomia zirkularra sustatzen duten, lurzorua emankortasunari eusten dioten eta ekoizpen osasuntsu eta jasangarriak bermatzen dituzten ekoizpen sistemak bultzatzea.
 - c) Lurzorua degradatzea eta, bereziki, higadura saihesten duten nekazaritza eta basogintzako jardunbideak erabiltzea eta aldi berean, lurzorua materia organikoa kontserbatzen laguntzea.

- d) Ongarri kimikoak zentzuz erabiltzea eta, ahal den heinean, horien ordeztuapenetik edo ingurunetik edo hondakin organikoetatik sortutako ongarriak erabiltzea.
 - e) Karbonoa gordetzea bultzatzea materia organikoaren, landare estalkien, basoberritzeen, ekosistemak berroneratzearen eta kontserbazioko laborantzaren kudeaketa sustatuz.
 - f) Lurzoruko karbono organikoaren bilakaera kontrolatzea hori gehitzeko neurriak ezartzeko tresna gisa.
 - g) Degradatutako lurzorua berreskuratzea basoberritzeko edo bernaturalizatzeko edo lurzoruko karbono kopurua gehitzen lagunduko duten beste erabilera batzuetarako.
 - h) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktu ekologikoak bultzatzea eta hurbileko produktuak kontsumitzea eta nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpeneko sistema estentsiboak sustatzea.
 - i) Baso suteen arriskua murriztuko duen baso kudeaketa bultzatzea, basoko biomasa aprobeztatzea eta nekazaritzako eta basogintzako mosaikoak eta larre-mosaikoak lehengoratzeko, fisiologikoki baldintza klimatikoetara hobeto egokitutako tokiko espezieetatik abiatuta eta baso baliabideak sustatzea, zurgintzakoak nahiz zurgintzakoak ez direnak.
 - j) Eraikinetan, etxebizitzetan eta altzari publikoetan egurraren erabilera sustatzea eta basoko biomasa energia iturri gisa bultzatzea.
 - k) Mindak, simaurrak eta nekazaritzako eta arrantzako hondakinak behar bezala kudeatzea eskuragarri dauden teknika onenak erabiliz, energia eskuratzea eta ekonomia zirkularra sustatzea barne.
 - l) Nekazaritzako elikagaien sektoreak sortutako soberakinak, materia organikoak, azpiproduktuak eta hondakinak behar bezala kudeatzea.
 - m) Bere jardueretan berotegi efektuko gasen emisioa murrizten lagunduko duten programen bidez sektorea sustatzea.
 - n) Trantsizio energetiko eta klimatikorako soluzioak emango dituzten sektorearen garapenerako esparruetan ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea.
2. Abeltzaintza ustiapenera eta nekazaritza, basogintza eta arrantza jardueren karbono azterna kalkulatu eta plan bat egin beharko dute sortzen dena gutxitzeko, aztarnarik egon ez dadin edo, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero, negatiboa izan dadin. Erregelamendu bidez ezarriko dira betebeharrak horren eraginpeko instalazioak,

karbono aztarnaren kalkuluaren irismena, planaren gutxieneko edukia, plana idazteko epea eta eguneratzeen maiztasuna.

23. artikulua.- Ondare naturala kudeatzea

Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, berotegi efektuko gasen emisioak gutxitzeko eta ezabatzeko inguru naturala eta biodibertsitatea babestu eta kudeatzeko egiten dituzten jarduketak ondare naturalaren kudeaketaren bidez egingo dira sektoreko eragileen bitartez, eta honako hauek lortzeko izango dira:

- a) Sistema naturalak kudeatzeko eta kontserbatzeko politikak sustatzea, biodibertsitatea kontserbatzeko eta hobetzeko eta epe luzean CO₂-ren hustubideak bultzatzeko Europar Batasunak ezarri dituen eskakizunekin bat etorritik.
- b) Hainbat sektoretan politika eraginkorrak ezartzea, besteak beste nekazaritzan, lurraldearen antolamenduan eta plangintzan, eraikuntzan eta azpiegituretan, baso kudeaketan edo turismoan, sistema naturalak eta biodibertsitatea kontserbatzen eta emisioak gutxitzen lagunduko duten ekintzak eta jardunbide onak saritzeko.
- c) Biodibertsitatearentzat onuragarriak diren emisioak arintzeko jarduketak planifikatzea eta egitea.
- d) Behar den ezagutza oinarria sortzea biodibertsitateari eta klima aldaketari buruzko ikerketa aplikatuko proiektuen artean eta murrizteko eta egokitzeko eta biodibertsitatea kontserbatzeko helburuen artean txertatzea indartzeko.
- e) Lurzoruak lehen mailako karbono hustubide gisa gordetzen direla bermatzea.
- f) Klima aldaketako irizpideak biodibertsitatea kontserbatzeko politika eta neurrietan eta biodibertsitatea kontserbatzeko irizpideak klima aldaketaren aurkako politika eta neurrietan txertatzea.

24. artikulua.- Karbono hustubideak

Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, karbono hustubideen kudeaketarekin lotutako jarduketak egin beharko dituzte honako hauek lortzeko:

- a) Baso habitatak, belardiak eta larreak, hezeguneak, itsas belardiak eta beste habitat batzuk garatzen eta lehengoratzeko laguntzea, klima aldaketarekiko erresilientzia hobetzeko, karbono hustubide gisa duten gaitasuna handituz, baita hiriguneetan ere, bereziki ingurumen zona sentikorretan eta bertako espezieen tokiko barietateak lehenetsiz.
- b) Lurzoruko karbonoaren bilakaera monitorizatzea eta gehitzen laguntzea hainbat neurrien bidez, esaterako nekazaritza jardunbide jasangarriak ezarriz.
- c) Suteak prebenitzeko programak hobetzea.
- d) Plangintza tresnetan klima aldaketa kontuan hartzen duten ekosistema naturalak kontserbatzeko eta eraberritzeko jarraibideak txertatzea, azpiegitura berde-urdinarekin eta antzeko tresnekin.
- e) Hirietan, hiriguneetan eta hiriko eraikinetan karbono hustubideak sustatzea, bertako espezieen erabilera bultzatuz eta lurzorua artifizializatzea saihestuz, azpiegitura berde-urdina sustatuta. Hiriguneetan zona berdeen azalera handitzea, eta hiri-inguruneekin eta landa-eremuekin lotutako korridore ekologikoak ezartzea.

25. artikulua.- Lurraldearen antolamendua, hirigintza plangintza eta hiri berroneratzea

Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko lurralde antolamenduaren eta hirigintza plangintzaren alorretan ezarriko dituzten plangintzak eta neurriek honakoak sustatuko dituzte:

- a) Hiri egitura konpaktuak eta erabilera mistoak dituztenak.
- b) Eskuragarri dauden azpiegiturak eta baliabideak aprobetxatzea eta naturan eta material jasangarrien erabileran oinarritutako soluzioak dituzten azpiegitura berdeak sustatzea.
- c) Energia berriztagarrien garapena bideratzea.
- d) Lurzoruaren okupazioa arrazionalizatzea eta degradatutako espazioak berrerabiltzea energiaren eta uraren erabilera jasangarria eta hondakinen eta lurzoruen kudeaketa bultzatuz.
- e) Lurzoruak lehengoratzeko eta eraikinak eraberritzeko eskakizuna.

- f) Hirigintza plangintzak diseinatzeko betebeharra, euri urak berrerabiltzeko eta iragazteko, energia eraginkortasunerako, energia berriztagarriak erabiltzeko eta karbonoan neutroak diren eraikinak sustatzeko irizpideak txertatuz.
- g) Lurralde antolamenduaren araberrako mugikortasun jasangarriko ereduak, eraginkortasun energetikoa, mugikortasun moduetan sozialki eraginkorrak diren alternatibak eta salgaien garraioa kontuan hartuko dituztenak.
- h) Hiri eta landa espazioak integratzea garraio sistema jasangarriagoen bidez eta modalitate aniztasunean, estaldura zabalean eta garraio zerbitzuen eskuragarritasunean arreta berezia jarritz.
- i) Hirigintza araudia egokitzea lehendik dauden eraikinen eraberritze energetikorako oztopoak gutxitzeko.

26. artikulua. Eraikingintza eta eraikinak eraberritzea

1. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, honako hauek sustatuko dituzte eraikingintzaren eta eraikinen eraberritzearen alorretan:
 - a) Auditoretzak egitea, eraikinetan energiaren erabilera zentzuzkoagoa eta efizienteagoa egiteko, energia berriztagarrien instalazioak ezartzeko eta garraio eraginkorragoa eta jasangarriagoa bideratzeko inbertsioak egiteko jarduketan aukera tekniko eta ekonomikoak identifikatu eta aztertzeke, kasu bakoitzean, onura ekonomiko, ingurumeneko eta sozial esanguratsuenak aztertuz.
 - b) Lehendik eraikita dauden eraikinak eta instalazio publiko nahiz pribatuak berritzea eta eraberritzea, horien energia kontsumoa eta karbono aztarna murrizteke.
 - c) Eraikuntza eta eraberritze materialak beren bizi zikloaren eta karbono aztarnaren azterketa kontuan hartuta erabiltzea, onartutako arau, estandar edo ziurtapen sistemekin bat etorriz.
 - d) Eraikuntzan egurra erabiltzea sustatzea.
 - e) Eraikin berriak sustatzea ahalik eta kalifikazio energetiko handienarekin eta estandar jasangarrienen arabera, eta gizarte, ingurumen eta ekonomia irizpideekin.
 - f) Lege honen helburuak lortzeko finantzaketa tresnak eta mekanismoak bultzatzea.

2. Euskal administrazio publikoek etxebizitza parkearen eraberritze energetikoa sustatzen duten politika aktiboak bultzatuko dituzte. Hori guztia lortzeko:
 - a) Alokairu araubideko etxebizitzaren parke publikoa eraberrituko du aurrezpena hobetzea eta energia eraginkortasuna lortzeko. Hala, ahalik eta energia eraginkortasunaren ziurtagiri altuena lortuko da.
 - b) Etxebizitza publikoen jabeekin lankidetzan aritzea eskuragarri dauden mekanismoen bitartez, lege hau bete ahal izateko.

3. Euskal administrazio publikoek neurriak sustatuko dituzte inbertsio premien inpaktua eta energiaren kostuaren hazkunde handiak arintzeko, eta kolektibo zaugarrienen etxebizitzetarako eta berokuntzako energia eraginkortasunerako laguntza gisa.

27. artikulua.- Titulartasun publikoko azpiegiturak eta ekipamenduak

Euskal administrazio publikoen titulartasuneko azpiegitura eta ekipamendu handien proiektuetan, plan eta proiektuen ingurumen ebaluazioaren esparruan, erregai fosilen kontsumoa gutxitzeko alternatiben balorazio bat egin beharko da, bereziki, bititza erabilgarri osoan zehar berotegi efektuko gasen emisio zuzenak eta zeharkakoak eta bititza erabilgarriko energia kontsumoaren kostuak gutxitzeko.

V. KAPITULUA

LURRALDEAREN ERRESILIENTZIA: KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA

28. artikulua.- Lurralde eredu egokitua eta erresilientea

Lurralde eredu eta klima aldaketara egokitutako gizarte erresilientea izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek hurrengo artikuluetan ezarritako neurriak hartuko dituzte eta sektore eta lurralde politika publikoen multzoan txertatuko dituzte.

29. artikulua.- Azpiegitura kritiko eta sentikorrak

1. Hornidura eta komunikazioen oinarrizko zerbitzuak bermatzeko, larrialdi egoeretan azpiegitura kritikoak eta sentikorrak martxan mantentzeko eta azpiegiturak klima aldaketaren efektuen aurrean duten erresilientzia gehitzeko, euskal administrazio publikoek, beren eskumen eta erantzukizunekin bat etorriz, honako hauek lortzeko ekintzak gauzatu beharko dituzte:

- a) Azpiegitura kritiko eta sentikorrak identifikatzea eta existitzen diren diseinu eta protokolo parametroak eguneratzea, dagokion azpiegituraren klima arriskuaren analisia gehituz eta hori murrizteko ezarri beharreko neurriak identifikatuz. Hori guztia arriskuen ebaluazioa, alternatiben analisia edo egokitzapen plana hartuko dituen dokumentua sortuko da.
- b) Epe luzean jarduketa esparru estrategikoak aurreratuta eta ordenatuta izatea ahalbidetzen duten sektore planak egitea, azpiegituren sare eta zibersegurtasunaren diseinua barne, eta elementu kritikoak azpimarratzea.
- c) Azpiegiturak indartzea muturreko gertakari meteorologikoei erantzuteko gaitasuna handitzeko, horien diseinua berrituz, erresilientzia handituz eta gertakari kritikoaren aurreko epe motzeko erantzun planak ezarriz.

2. Azpiegitura kritiko eta sentikorrek klima aldaketaren ondoriozko arriskuak minimizatzeko plan bat egin beharko dute eta arrisku horiek murrizteko neurriak prestatu.

Erregelamendu bidez ezarriko dira betebeharraren eraginpeko instalazioak, planaren gutxieneko edukia, idatzita egon behar duen epea eta eguneratzearen maiztasuna.

30. artikulua. -Lurraldearen antolamendua, hirigintza plangintza eta hiri berroneratzea.

1. Lurralde eta hirigintza plangintzak eta kudeaketak eta hiriguneetako esku-hartzeak, klima aldaketaren ondorioetara egokitzeko, honako helburu hauek izango dituzte:

- a) Zaurgarritasun analisia eta klima aldaketara egokitzea lurralde antolamenduaren tresnetan eta hirigintza antolamenduan txertatzea.
- b) Klima aldaketaren aurrean erresilientzia duen hiri azpiegitura sustatzea, sendoa eta erabilera mistokoa.
- c) Hirigintza eta eraikuntza alorretan tokiko klima aldaketara egokitzeko eredu berriak garatzea, lurzorua iragazkortzea eta hirietako espazio berdeak sustatuz.
- d) Hirigintza plangintzak diseinatzeko betebeharra, honako hauek kontuan hartuta: bero boladak saihesteko irizpideak, euri urak erregulatzeko, berrerabiltzeko eta iragazteko sistemak, uholde arriskuak gutxitzeko neurriak eta eraikin moldagarrien sustapena. Zehazki, hiriguneei dagokienez, hirigintza plangintzan bateragarri egin behar da uholdeak prebenitzeko arazo hidraulikoaren soluzioa hirigintza plangintzarekin.
- e) Hiri berroneratzeko esku-hartzeak aprobetxatzea egokitzapen neurriak txertatzeko eta printzipio bioklimatikoak ezartzea hiri eta arkitektura diseinuan.
- f) Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako irtenbideak sustatzea ekosistemak eta gizarteari ematen dizkioten zerbitzuak lehengoratzeko mekanismo gisa, lurraldeen eta hiriguneen erresilientzia eta herritarren osasuna mantentzeko eta hobetzeko.
- g) Lurzoruaren artifizializazioa mugatzea eta okupazioa arrazionalizatzea eta degradatutako espazioak berrerabiltzea energiaren eta uraren erabilera eta hondakinen, lurzoruen eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria bultzatuz.

31. artikulua.- Ingurune urtar kontinentala, itsas ingurunea eta itsasertza babestea

Itsas ingurunea eta itsasertza planifikatu eta kudeatzean kontuan hartuko da klima aldaketaren efektuekiko erresilientzia gehitzea, honako hauek lortzeko:

- a) Klima aldaketak itsasertzeko eta jabari publiko hidraulikoko eremuko erresilientzian sortzen dituen arrisku nagusiak identifikatzea, ebaluatzea eta horien jarraipena egitea.
- b) Kostaldeetako eremuetan eta, bereziki, inguru naturalean, urbanizatutako zonetan eta turismoaren sektorean klima aldaketaren inpaktua minimizatzea.
- c) Itsas mailaren igoerak eta itsasoarekin lotutako bestelako gertaera meteorologikoen ondasunetan, herritarrengan eta tokiko jarduera ekonomikoan duten eragina kalkulatzeko.
- d) Uholdeak izan ditzaketen zonen ebakuazio protokoloak egokitzea eta modernizatzea ingurune guztietan eta muturreko gertakari meteorologikoen aurrean alerta goiztiarreko sistemak garatzea eta indartzea.
- e) Urbanizatu gabeko eremuak ur goraldien aurkako egokitzapen eta erresilientzia zona gisa kontserbatzea, bai itsas ingurunean bai ingurune kontinentalean.
- f) Ingurune urtar kontinentalaren eta itsas ingurunearen eta haren biodibertsitatearen presioa gutxitzea, haren erresilientzia eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna babestuz eta bideratuz.

32. artikulua.- Baliabide hidrikoak eta lehorteak eta uholdeak kudeatzea

Klima aldaketaren arriskuak jorratzeko, plangintza eta kudeaketa hidrológicoan honako hauek egin beharko dira:

- a) Bestelako sektore politikan baliabide hidrikoen kudeaketa txertatzea ura modu arduratsuago eta jasangarriagoan erabiltzeko eta lehorte edo uholde egoeren aurrean erantzuteko gaitasuna handitzeko.
- b) Klima aldaketak uraren plangintzan eta kudeaketan eragindako arrisku nagusiak identifikatzea, ebaluatzea eta horien jarraipena egitea, honako hauek barne: eskuragarri dauden emarien eta baliabideen gaineko inpaktuak, ur premien eta ur

masen eta horiekin lotutako eremu babestuen egoeraren gaineko inpaktuak, bai eta ur goraldiek tokiko ondasunetan, herritarrengan eta jarduera ekonomikoan duten eragina ere.

- c) Egokitzeko eta erresilientzia handitzeko irizpideak txertatzea klima aldaketaren aurrean, neurriak identifikatzeko, ebaluatzeko eta aukeratzeko. Bereziki, uraren erabilera eraginkorrari buruzko irizpideak, kontrolatu gabekoak gutxitzea barne, eta eskaria kudeatzeko planak garatzea.
- d) Ekosistemen eta gizarteari ematen dizkieten zerbitzuen eraberritze progresiboa eta integrala lortzeko neurriak aplikatzea, uraren zikloa kudeatzeko.
- e) Sektoreko araudiaren arabera plan hidrologikoak eta Uholde eta Lehorte Arriskuen Kudeaketa Plana eguneratzea, zaurgarritasun eta arriskuak detektatuz eta klima aldaketaren eta muturreko gertakarien inpaktua murrizteko inbertsioak eginez.

33. artikulua.- Ondare naturala babestea

Klima aldaketaren arriskuen aurrean ondare naturala babesteko, euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, honako helburu hauek lortzeko jarduketak gauzatuko dituzte:

- a) Ekosistemen aniztasuna eta erresilientzia eta kontserbazio egoera ona bermatzea, konektibitate ekologikoa handitzea, ekosistema zerbitzuak zaintzea eta sustatzea eta egungo presioak murriztea.
- b) Klima aldaketak lurzoruan, landare estalkian eta uretan sortutako efektuak saihestea edo gutxitzea eta, hala dagokionean, fenomeno horiek gertatu aurreko baldintzak ezartzea.
- c) **Azpiegitura berdea sustatzea, klima-aldaketak eremu babestuen ondoko eremuetan dituen eraginak murrizteko.**
- d) Itsas eremuaren eta eremu kontinentalaren arteko trantsizio eremuetan eta ibai inguruneetan dauden ekosistemen gainazala babestea, lehengoratzea eta handitzea, bai eta klima aldaketaren inpaktuaren aurrean beste irtenbide natural batzuk ezartzea ere.

- e) Espazio naturalek klima aldaketaren aurrean duten erresilientzia gehitzea eta espazio horiek aprobetxatzea landa eta hiri inguruetako zonen erresilientzia hobetzeko.
- f) Klima aldaketa ondare naturala kudeatzeko tresnetan txertatzea.

34. artikulua.- Nekazaritza, baso, abeltzaintza eta arrantza sektorea

Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lehen sektorearen zaugarritasunari eta arriskuari lotutako honako helburu hauek lortzeko jarduketak egingo dituzte:

- a) Nekazaritzaren, abeltzaintzaren, arrantzaren eta basoen arloan zaugarrienak diren eremuak identifikatzea eta horien egokitzapenerako ikerketa sustatzea, bai eta sektorearentzat ager daitezkeen aukerak aprobetxatzea eta espazio degradatuak edo aldeztatik beste erabilera batzuetan erabilitakoak lehengoratzeko eta berrerabiltzeko alternatibak ere.
- b) Higadura minimizatzen duten, lurzoruko materia organikoa gordetzen duten eta tokiko ekoizpena gehitzen duten nekazaritza jardunbideak garatzea.
- c) Sektorearen ezagutza gehitzea klima aldaketarako egokitzapenean eta ondare naturalaren kontserbazioan aurrera egiteko.
- d) Sistema naturalak kudeatzea eta kontserbatzea horien kontserbazio egoera hobetzeko eta erresilientzia sustatzeko.
- e) Landa ingurunearen erresilientzia areagotzea eta ekosistemen zerbitzuak hornitzen laguntzea.

35. artikulua.- Industria, merkataritza, turismo eta zerbitzuen sektoreko gainerako jarduerak

Larrialdi egoeretan industria, merkataritza, turismo eta zerbitzuen sektoreko gainerako jardueren garapena bermatzeko eta klima aldaketaren efektuekiko erresilientzia areagotzeko eta, halaber, klima aldaketak ekar ditzakeen aukerak antzemateko, euskal administrazio publikoek honako hauek lortzeko ekintzak garatu beharko dituzte:

- a) Sektore zaugarrienak identifikatzea, egokitzeko ikerketa sustatzea eta sor daitezkeen aukerak baliatzea.
- b) Sektoreen ezagutza handitzea, klima aldaketarako egokitzapenean aurrera egiteko.
- c) Plan sektorialak bultzatzea, epe luzeko jarduketa esparru estrategikoak aurreratuta eta antolatuta izateko aukera emango dutenak.

36. artikulua.- Osasun sistema

Euskal administrazio publikoek klima aldaketak osasun publikoan sortzen dituen efektuei buruzko ezagutza hobetzea sustatuko dute eta klima aldaketaren efektuek biztanleen osasunean sortzen dituzten arriskuak prebenitzeko eta babesteko mekanismoak garatuko dituzte, arrisku emergenteak barne.

37. artikulua.- Larrialdiei erantzutea, babes zibila eta segurtasuna

Euskal administrazio publikoek egokitu eta eguneratu egingo dituzte larrialdien prebentzio, azterketa, arreta, erantzun eta jarraipenen sistemak, babes zibil eta segurtasun sistemak eta klima aldaketaren inpaktuei aurre egiteko kontingentzia planak, muturreko gertakariak barne.

VI. KAPITULUA
TRANSIZIO ENERGETIKOAREKIN ETA KLIMA ALDAKETAREKIN
LOTUTAKO ZEHARKAKO TRESNAK

Artículo 38.- Evaluación ambiental de planes, programas y proyectos

1. Euskal Autonomia Erkidegoko planen, programen eta proiektuen ingurumen ebaluazioko prozeduretan, klima aldaketarekin lotutako efektuen identifikazioa, deskribapena eta ebaluazioa aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera egingo dira eta une bakoitzean eskuragarri dauden klima aldaketaren alorreko informazio eta teknika eguneratuenak erabili beharko dira.
2. Bereziki kontuan hartuko dira horiek egikaritzeak sor ditzaketen berotegi efektuko gasen emisioak eta horien bizitza erabilgarrian sortutako emisioak, horiek murriztu eta/edo konpentsatzeko neurriak eta klima arriskua areagotzeak ingurunean sortzen dituen gainerakoak minimizatzeko behar diren egokitzapen neurriak.

39. artikulua.- Ezagutza eta hezkuntza bultzatzea

1. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorrean beraien ezagutza, gaitasunak eta hezkuntza sustatzeko ekintzak bultzatuko dituzte eta horiei esker karbono neutraltasuna lortzeko, klima aldaketara egokitzeko eta gizarte erresiliente baterako aurrerapausoak emango dira.
2. Helburu horiek lortzeko, hezkuntza, ingurumen, energia eta klima aldaketaren alorretan eta Lege honen aplikazio esparruan eragina duten sektoreko beste arlo batzuetan eskudunak diren euskal administrazio publikoek, beren jarduketak koordinatuko dituzte helburu horiek plangintza tresnetan txertatzeko eta kontuan izango dute enpresen, elkarteen eta hezkuntza arautuko eta ez arautuko zentroen ikuspegia.
3. Eusko Jaurlaritzako hezkuntza, energia, ingurumen eta klima aldaketaren alorretan eskudunak diren sailek energiaren eta klima aldaketaren alorretan aurrera egiteko

prestakuntza sustatzen duten hezkuntza formaleko eta informaleko askotariko prestakuntza ibilbideetan klima aldaketa nola tratatzen den berrikusiko dute eta irakasleen prestakuntza bultzatuko dute.

4. Euskal administrazio publikoek beren zerbitzura dauden langile guztiei zuzendutako prestakuntza jarraitua sustatuko dute, Lege honen xede diren alorretan eraginez.
5. Biztanleria segmentu jakinei dagokienez, trantsizio bidezkoa bermatzeko pertsonen gaitasunak eguneratzea eta garatzea sustatzeko ekintzak jarriko dira martxan.

40. artikulua.- Ikerketa, garapena eta berrikuntza

1. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren prozesua eta karbono neutraltasuna eta klima aldaketara egokitzea sustatzen duten ikerketako, garapen teknologikoko eta berrikuntzako ekintzak bultzatuko dituzte.
2. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lehentasunez babestuko dituzte herrialdeko indarguneak eta gaitasunak garatzea, negozio aukera berriak aprobetxatzea eta, azken finean, enpresa, industria eta lurralde lehiakortasuna hobetzea ahalbidetzen duten teknologia eta proiektu berritzaileak.
3. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, Euskadin energia eraginkortasuna, energia berriztagarriak, karbonoa bildu, biltegitatu eta erabiltzeko sistemak, Euskadiko ekonomia zirkularra eta abangoardiako euskal industria ahalbidetzen duten teknologiak babestuko dituzte.
4. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorreko ikerketa, garapen teknologikoa eta ezagutzaren transferentzia lehentasunezko eremuak dira zientzia, teknologia eta berrikuntzaren estrategietan, eta eragile zientifikoaren eta teknologikoen eta ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren indartzen duten neurriak sustatuko dira.

5. Ikerketa, garapena eta berrikuntza sektoreko programetan txertatu behar dira misio bidezko ikuspegiarekin eta erronkei erantzunez. Norabidea argia, neurgarria eta denborazkoa izan behar dute, teknologia berrietan, soluzio jasangarrietan eta berrikuntza disruptiboan oinarritutako sektore arteko goranzko orientazioarekin.

41. artikulua.- Sentsibilizazioa eta informazio publikoa

1. Euskal administrazio publikoek trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorretan herritarrak informatzea eta kontzientziaztea xede duten sentsibilizazio ekintzak eta kanpainak gauzatuko dituzte.
2. Energia eta klima aldaketari buruzko informazioa publikoki eskuratzeko eskubidea ingurumen informazioa eskuratzeko legerian ezarritakoa betez egikarituko da.

42. artikulua.- Trantsizio energetikoari eta klima aldaketari buruzko ekimenen euskal erregistroa

1. Trantsizio energetikoari eta klima aldaketari buruzko ekimenen euskal erregistroa sortu da Eusko Jaurlaritzako energia eta klima aldaketaren arloko sail eskudunari atxikita. Jarduera publikoen edo pribatuen titularrek erregistroan doan inskribatzeko aukera izango dute eta, modu horretan, publikoki jasota geratuko da bakoitzak bere gain zer konpromiso hartu dituen bere jarduerari lotutako klima arloko ekintzei dagokienez, lehen sektorekoak barne.
2. Erregistro horretako atal batean derrigorrez inskribatu beharko dira arauak betez ezarritako jarduerak, eta beste atal batzuk egongo dira klima arloko ekintzei lotuta konpromisoak borondatez hartu dituzten erakundeentzat.
3. Erregistroak atal hauek izango ditu, gutxienez:
 - a) Karbono aztarnaren kalkulua eta murrizketa, erakundearen urteko karbono aztarna derrigorrez inskribatzeko eta berotegi efektuko gasen emisioen murrizketari buruzko informazioa emateko.



- b) Karbono aztarnaren kalkulua eta murrizketa, erakundearen urteko karbono aztarna borondatez inskribatzeko eta berotegi efektuko gasen emisioen murrizketari buruzko informazioa emateko. Atal honetan, erakundearen ingurumen aztarna ere erregistratu ahal izango da.
 - c) Erregistroan modu boluntarioan inskribatzeko proiektu energetikoak, berotegi efektuko gasen emisioak arintzeari buruzkoak. Modu horretan, energia aurrezpenari, energia berriztagarriak gehitzeari edo erregai fosilak ordeztuari buruzko informazioa ere jasoko dute.
 - d) Modu boluntarioan inskribatzeko industria proiektuak, energia eraldaketari edo deskarbonizazioa lortzeko ekoizpen prozesuak eraldatzeari buruzkoak.
 - e) Trantsizio energetikoaren prozesua sustatzea ahalbidetzen duten azpiegitura energetikoen proiektuak.
 - f) Karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak, lurzoruaren erabilera edo haren kudeaketa aldatuz karbono dioxidoa xurgatu dela egiaztatzen duten proiektuak inskribatzeko; biodibertsitatearen kontserbazioarekin eta erregelamendu bidez ezartzen diren beste batzuekin bateragarria izan behar du.
 - g) Karbono aztarnaren konpentsazioa, karbono dioxidoaren xurgatze proiektuen sekzioan inskribatutako erakundeek edo arau bidez ezarritako beste batzuek egindako xurgatze bidezko karbono aztarnaren konpentsazio ekintzak inskribatzeko.
 - h) Klima aldaketara egokitzeko ekintzak, zaurgarritasun eta arrisku klimatikoaren azterketa inskribatzeko eta klima aldaketara egokitzeko alorrean garatutako ekintzei buruz informatzeko.
4. Arau bidez ezarriko dira erregistro horretan inskribatzeko funtzionamendua, edukia eta baldintzak. Bestalde, erregistro hori publikoa izango da ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, parte hartze publikorako eta justiziarako sarbiderako eskubideak arautzen dituen araudiko terminoen arabera, legeak datu pertsonalak babesteari buruz xedatutakoaren kalterik gabe.
5. Kontratazio organoek kontratazio prozeduran ezartzen diren ingurumen kontsiderazioen artean sartu ahal izango dituzte artikulua honetan arautzen den erregistroan inskribatzeari buruzkoak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean edo hura ordeztzen duen arauan ezarritakoaren arabera.

43. artikulua.- Ekonomia deskarbonizatzeako digitalizazioa

1. Euskal administrazio publikoek ekintzak ezarriko dituzte ekonomiaren digitalizazioa sustatzeko eta modu horretan, Lege honetan aurreikusitako klima neutraltasuneko xedeak lortzeko.

2. Ekintza horien artean honako hauek egongo dira, beste batzuen artean:
 - a) Muturreko meteorologia gertakariak aurreikusteko, klima aldaketa ebaluatzeko eta hondamendi naturalak eta ingurumenekoak kudeatzeko gaitasuna hobetzea.
 - b) Eraginkortasun energetikoa eta errendimendua sustatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen ekonomia zirkularraren baldintzetan.
 - c) Digitalizazioa sustatzea, eraginkortasun energetikoa bultzatzeko eta gizarteko eta ekonomiako sektore guztietan berotegi efektuko gasen emisioak eta kutsatzaileak murrizteko.
 - d) Kontsumitzaileei eta industriari produktuen jatorriari, konposizioari, bizi zikloaren azken kudeaketari eta birziklapenari buruzko informazioa ematea.
 - e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien datu zentroek eta azpiegiturek eraginkortasun energetiko handiagoa izatea, hondar energia berrerabiltzea eta energia berriztagarriko iturriak erabiltzea sustatzea.
 - f) Garraio automatizatua eta konektatua babestea, mugikortasuna hobetzeko.
 - g) Digitalizazioa askotariko eragileen eta sektoreen karbono aztarna kalkulatzeko beharrezko tresna gisa bultzatzea.
 - h) Teknologia digitalak eta datuen partekatzea bultzatzea, azpiegitura eta aktibo energetikoen diseinua, monitorizazioa eta eragiketa optimizatua errazteko, energia eraginkortasunaren, kontsumoen elektrifikazioaren, energia berriztagarrien eta hidrogeno berriztagarria eta karbono gutxikoa biltegitratzeko eta ekoizteko sistemen eremuetan.

44. artikulua.- Erosketa publikoko produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono aztarna



1. Euskal administrazio publikoen eta sektore publikoko gainerako erakundeen kontratazio organoek kontratuen administrazio klausula berezien eta xedapen teknikoen pleguetan lizitazioen xede diren produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono aztarna jasotzeko betebeharra ezarriko dute, betiere, betebehar hori kontratuaren xedarekin lotzen bada eta kontratazio publikoaren informazio-printzipioarekin bateragarria bada.

Ondorio horietarako, lizitatuzaileek karbono aztarna justifikatu ahal izango dute, lege honetan aurreikusitako Energia Trantsizioko eta Klima Aldaketako Ekimenen Euskal Erregistroan edo ingurumen kudeaketako neurri baliokideen beste frogabide batzuetan aurreikusitako inskripzioaren indarraldia egiaztatuz.

2. Aurreko atalean ezarritakoa nahitaezkoa izango da Energia Trantsizioko eta Klima Aldaketako Ekimenen Euskal Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua onesten dituen erregelamendu arauan finkatzen den epean.

45. artikulua.- Energia kontrolatzeko, emisioak murrizteko eta egokitzeko teknikak eta teknologiak bultzatzea

1. Euskal administrazio publiko eskudunek teknika eta teknologiak sustatu eta bultzatuko dituzte, eta teknika eta teknologia horiek jarduera ekonomikoen ekoizpen prozesuetan txertatzean, aintzat hartutako produktuaren edo prozesuaren ziklo osoan energia kontsumoak kontrolatu, eta berotegi efektuko gasen emisioak nabarmen murriztuko dira.

Horretarako, aldian-aldian teknologia garbien zerrenda bat onetsi eta eguneratuko da, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitako moduan.

2. Energia hobekuntzarako edo ingurumena babesteko proiektuak edo jarduketak egiteko laguntzen edo dirulaguntzen emakiden arauak edo oinarri arautzaileek ekoizpen prozesuak erabiltzeari buruzko balorazio irizpideak ezarri ahal izango dituzte, hain kutsagarriak ez diren energiak pixkanaka sartzea, berotegi efektuko gasak murriztea

eta/edo efektu murriztaile edo egokiztaile bera duten ekipo ondasunak eskuratzea ahalbidetzeko.

46. artikulua- Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorreko zerga sistema

1. Euskal administrazio publikoak, trantsizio energetikoaren eta klimatikoaren prozesuan zehar, euren artean lankidetzan eta koordinazioan arituko dira, zaugarritasuna areagotzen edo berotegi efektua eragiten duten gasen emisioa handitzen duten jardueren gaineko zerga jakin batzuk ezartzea ebaluatzeko, bai eta emisioak arintzen, murrizten eta xurgatzen laguntzen duten jarduerak fiskalki pizgarriak izateko, eta, ahal denean, klima aldaketara teknikoki eta ekonomikoki egokitzeko jarduerak bultzatzeko ere.
2. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorreko zerga sistemaren helburuetako batzuk hauek izango dira:
 - a) Energia berriztagarriak sustatzea.
 - b) Sareak deszentralizatzea eta autokontsumo energetikoa.
 - c) Energetikoki eraginkorrak diren eraikinak eta etxebizitzak.
 - d) Mugikortasun jasangarria.
 - e) Ura aurrezteak.
 - f) Biodibertsitatea hobetzeko edo hura galtzea saihesteko jarduerak.
 - g) Osasunaren gaineko inpaktuak murriztea.
 - h) Ekipamendu eraginkorragoak.
 - i) Ekoizpen prozesuak aldatzea, berotegi efektuko gasen emisioak eta bestelako agente kutsatzaileak murrizteko, eta aldaketa klimatikorako egokitzapena hobetzeko.
 - j) Ekonomia zirkularreko ereduak bultzatzea, deskarbonizazioa lortzeko.
 - k) Baso eta nekazaritza kudeaketa jasangarria.
 - l) Hondakinen sorkuntzako prebentzioa eta hondakinen balorizazioa.
 - m) Arrantza, akuikultura eta itsaski biltzea jasangarriak.
 - n) Askotariko sektore ekonomikoen eta sistema naturalen egokitzapena eta zaugarritasuna murriztea.

3. Era berean, euskal administrazio publiko guztiek, beren eskumen fiskalen esparruan, pizgarri eta neurri fiskalen mekanismoak ezarri ahal izango dituzte energia eraginkortasunean, energia berriztagarrien ekoizpenean eta kontsumoan eta zero emisioko ibilgailuen erosketan eta erabileran egindako inbertsioei hobaria emateko, betiere, aurrezki handienak eta sektoreen deskarbonizazioa zein klima aldaketara egokitzea lortzeko erabilerak lehenetsiz.

47. artikulua.- Energia eta klima ikuspegia, aurrekontu publikoetan

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan, ikuspegi energetikoa eta klimatikoa txertatu beharko da. Gainerako Euskal Administrazio Publikoek beren aurrekontu publikoetan ikuspegi energetikoa eta klimatikoa txertatzea sustatuko dute, bereziki diseinu fasean.
2. Aurrekontuek trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren arloan eragin positiboa duten jarduerak identifikatuko dituzte, bai arintzeko, bai egokitzeko, ezartzen diren jarraibideen arabera.

Aurreko atalean aurreikusitako ondorioetarako, horiek osatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko jarraibideak ezarri beharko dira, baita trebakuntza prozesu egokiak ere.

48. artikulua.- Administrazio izapideak

1. Euskal administrazio publikoek administrazio prozeduren sinplifikazioa, arintzea eta gardentasuna sustatuko dituzte, Lege honetan ezarritako helburuak betetzeko proiektuak garatzeko, beraien eskumenei kalterik egin gabe.
2. Euskal administrazio publiko guztiak modu eraginkorrean koordinatuko dira, dagozkien administrazio izapideei lotutako betebeharrak betetzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. 2050erako ibilbide orria eta trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren lehenengo estrategia

11. eta 12. artikuluetan arautu diren 2050erako ibilbide orria eta trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren lehenengo estrategia Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onetsiko ditu, lege hau onartu eta gehienez ere 18 hilabeteko epean.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Lurralde historikoetako eta toki erakundeetako klima eta energia planak

Lege honen 13. artikuluan ezarritako lurralde historikoetako eta toki erakundeetako klima eta energia planen onarpena, zehazki, lege hau onartu eta hurrengo 2 urteetan egingo da.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Aurrekontu arloko jarraibideak

Lege honetan adierazitako helburuak betetzeko, indarrean sartu eta 2 urteko epean, Eusko Jaurlaritzan energiaren eta klima aldaketaren arloan eskumena duen sailak eta aurrekontu arloan eskumena duen sailak lege hau betetzeko bideratzen diren aurrekontu partidak identifikatzeko eta sortzeko jarraibideak landuko dituztela ezartzen da.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Estalkien gaineko eguzki planta fotovoltaikoetarako izapide administratiboa arintzea

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.5 artikulua onorioetarako, eraikinetan edo horien eraikuntza osagarrietan estalkiaren gainean jarritako eguzki instalazio fotovoltaikoak izapidetzeko, aparkalekuko pergolak barne, estalkiari atxikita, estalki inklinatuen kasuan edo estalki lauen kasuan, metro eta erdiko altuera gainditu gabe, interesatuak alde aurreko jakinarazpena idatzi beharko dio udalari.

Honako kasu hauek ez daude aldez aurreko jakinarazpen bidezko izapidetze araubide honi lotuta:

- Eraikinaren edo eraikuntzaren konfigurazio arkitektonikoa aldatzea dakarten proiektuak, eta, horrenbestez, indarrean dagoen legeriaren arabera hirigintza lizentziari lotuta daudenak.
- Interes kultureko ondasuntzat jotako edo katalogatutako eraikinak.
- Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa eskatzen duten proiektuak, aplikatu beharreko ingurumen araudiaren arabera.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Euskal Bulegoaren funtzionamendu erregelamendua onartzea

Eusko Jaurlaritzak Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Euskal Bulegoaren funtzionamendu erregelamendua urtebeteko epean onartuko du, honako lege hau onartzen denetik zenbatzen hasita.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren lehenengo estrategia onesten denera arte indarrean jarraituko dute energiaren eta klimaren sektore estrategiek, eta baita Eusko Jaurlaritzak 2021eko urriaren 26an onetsitako 2021/2024 urteetarako Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren planak ere.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGO AZKEN XEDAPENA. Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea aldatzea.

Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea honela aldatzen da:

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 14.3 artikuluan aurreikusitako jarduketa energetikoko planak klima eta energia planak izendatuko dira.

AZKEN BIGARREN XEDAPENA. Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea aldatzea.

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea honela aldatzen da:

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 11.2 artikulua berriro idatziko da, eta honela izango da:

“2.- Honako eginkizun hauek dagozkio Ingurumeneko Aholku Batzordeari:

- a) Ingurumen politikari buruz aholkatzea eta informazioa ematea, bere eskumen diren eta ingurumenarekin zerikusia duten plan eta programei dagokienez.
- b) Ingurumenaren babesarekin zerikusia duten lege aurreproiektuei eta xedapen orokorren proiektuei buruzko txostenak egitea.
- c) Ingurumen Esparru Programaren eta programa hori garatzeko plan espezifikoaren berri ematea.
- d) Ingurumen politikak eta enpleguaren sorrera, garapen jasangarria, ekimen ekonomiko publiko eta pribatuen koordinazioa eta ingurumen arloko herritarren partaidetza, hezkuntza eta sentsibilizazioa lotzeko txostenak zein neurriak proposatzea eta egitea.
- e) Kontseiluan ordezkaria duten erakundeek ingurumenaren arloan garatzen dituzten jarduera guztien jarraipena egitea.
- f) Unibertsitateek eta ikerketa zentroek ingurumen politikan parte har dezaten bultzatzea.
- g) Natura ondareko naturagune babestuen plangintza eta kudeaketa tresnei buruz berri ematea, tresna horiek egiteko edo aldatzeko unean, lege honek agindutakoaren arabera.
- h) Lurraldearen kudeaketan erantzukizuna duten administrazioen arteko koordinazioa sustatzea eta babestea, natura ondarearen babesa areagotzeko.
- i) Natura ondarea kontserbatzeko hezkuntza, ikerketa zientifikoa, dibulgazioa eta zabalkundea sustatzea.
- j) Naturaguneen kudeaketarekin lotura zuzenik ez duen edo kudeaketa horretarako beharrezkoa ez den edozein plan edo proiektuari buruzko informazioa ematea, aipatutako lekuetan eragin nabarmena izan badezake.

- k) Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko xxx (e) ko xxx/xxx Legean aurreikusitako helburuen eta plangintza-tresnen betetze-mailaren bilakaera aztertzea.
- l) Energia eta klima politiken arloan jarduteko proposamenak egitea.
- m) Legez edo erregelamenduz esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea”.

AZKEN HIRUGARREN XEDAPENA. Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legea aldatzea

Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legea honela aldatzen da:

I.- Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 12. artikulua h) atala kendu egingo da.

II.- Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 12. artikulua i) atala kendu egingo da.

III.- Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 13. artikulua j) atal berri bat gehituko zaio, honako testu honekin:

“j) Bulegoko langileen plantilla onartzea”.

IV.- Idazkera berria eman zaio Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 59.1 artikulua, eta honela geratuko da idatzita:

“1. Lege honetan araututako zehapen ahalmena lege honetan izendatutako Uraren Euskal Agentziako organo eskudunek gauzatuko dute, eta arau hauste arin edo larrien kasuan, Zuzendaritza Nagusiaren titulartasuna duen pertsonak gauzatuko du, 15 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta arau hauste oso larriengatik isunak jartzea, berriz, Gobernu Kontseiluaren eginkizuna izango da, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko gaietan aplikatzekoa den zehapen prozedurari buruzko araudiaren arabera.

AZKEN LAUGARREN XEDAPENA. Euskadiko natura ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legea aldatzea

Euskadiko natura ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legea honela aldatzen da:

I.-Euskadiko natura ondarea kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 58. artikulua honela idatzita geratuko da:

58. artikulua. – Izendatzeko prozedura.

1.– Natura ondarearen arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko sailak egingo ditu Batasunaren garrantzizko lekuen (BGL) proposamenak eta Hegaztien Babes Berezirako Eremuen (EBBE) adierazpenak, honako prozedura honi jarraikiz:

a) Batasunaren garrantzizko leku berriei buruzko hasierako proposamena, Hegaztien Babes Berezirako Eremuen adierazpenari buruzkoa eta lehendik daudenak aldatzeari buruzkoa eskumena duen sailburuaren aginduaren bidez egingo dira. Lekuak, hain zuzen, honako hauetan jasotako irizpideetan oinarrituta aukeratuko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentaraua, basa hegaztiak babesteari buruzkoa; Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzko 92/43/EEE Zuzentaruaren III. eranskina (habitatei buruzko zuzentaraua), eta dagokion informazio zientifikoa.

b) Hasierako proposamenak datuen formulario normalizatuko informazioa izan beharko du, Europako Batzordearen datu base ofizialaren arabera, eta bi hilabetez foru aldundien txostenak, jendaurreko informazioaren izapide orokorra eta sektore sozial interesdunen eta ukitutako administrazio publikoen entzunaldia egingo zaizkio. Izapide hori ezarritako epearen barruan amaitzen denean, Ingurumeneko Aholku Batzordeak txostena egingo du.

c) Batasunaren garrantzizko lekuen kasuan (BGL), proposamena behin betiko onetsiko da natura ondarearen arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko sailburuaren agindu bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Datuen formulario normalizatuko informazioa izan beharko du, Europako Batzordearen datu base ofizialaren eta Batasunaren garrantzizko lekuei aplikatzeko araubide prebentiboaren arabera.

2.– Kontserbazio bereziko eremuen (KBE) eta Hegaztien Babes Berezirako Eremuen (EBBE) adierazpena, kontserbazio helburuak eta neurriak barne, Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez egingo da, natura ondarearen arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko sailak proposatuta eta ekainaren 30eko 6/2022 Legean (Xedapen Orokorrak Osatzeko Prozedurarena) ezarritakoaren arabera.

3. – Kontserbazio bereziko eremuen (KBE) adierazpen dekretuak, eta KBE zein EBBE eremuen kasuetan, kontserbazio helburuak eta neurriak onartzeko dekretuak, gutxienez honako hauek jaso beharko ditu:

a) Natura 2000 gunearen behin betiko lurralde mugak ezartzen dituen kartografia.

b) Izendapena justifikatzen duten eta Batasunaren intereseko habitat naturalen eta animalia eta landare espezieen zerrenda, lehentasunekoak barne, horien guztien kontserbazio egoeraren balorazio batekin.

- c) Gunearen kontserbazio helburuak.
- d) Lekuaren osotasuna bermatzeko eta habitat naturalen, espezieen habitaten eta flora eta fauna basatien narriadura saihesteko behar diren araudiak, horiek izan baitira lekua izendatzeko eta lekua kontserbatzeko arrazoiak, bai eta horiek egoera onean kontserbatzea lortzeko eta mantentzeko behar direnak ere.
- e) Gerora habitat eta espezieak kontserbatzeko jarduerak garatzeko jarraibideak edo irizpideak.
- f) Kartografia egoki denean, espazioaren zonakatzearekin.
- g) Habitaten eta espezieen kontserbazio egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko programa.

II.-Euskadiko natura ondarea kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 70. artikulua bigarren atala honela idatzita geratuko da:

2.– Espezie bat katalogatu ondoren, kudeaketa plan bat onartuko da, natura ondarearen arloan eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren saileko titularraren aginduz. Kudeaketa plan hori foru organoekin koordinatuta landuko da, eta organo horiek izango dute plana aplikatzeko eskumena. Helburua izango da, hain zuzen, espezie horrek dituen mehatxuak desagerraraztea, horren iraupena bermatzea, populazioen berreskurapena eta kontserbazioa sustatzea eta haien habitatak babestea eta mantentzea, kontserbazio egoera onuragarri bat lortzeko.

AZKEN BOSGARREN XEDAPENA. Erreglamendu garapena

Gobernu Kontseiluari ahalmena ematen zaio, dekretu bidez eta energiaren eta klima aldaketaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak eskatuta, lege hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

AZKEN SEIGARREN XEDAPENA. Indarrean jartzea

Lege hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA

DEFINIZIOAK

- a) *CO₂ xurgatzea*: hustubide biologikoen atmosferatik CO₂, karbono dioxidoa, bahitzea.
- b) *Klima aldaketara egokitzea*: sistema naturaletan edo giza sistemetan doikuntza, proiektatutako edo benetako estimulu klimatikoak erantzuteko, edo horien ondorioak erantzuteko, kalteak arintzeko edo alderdi onuragarriak aprobetxatzeko.
- c) *Klima aldaketa*: zeharka edo zuzenean gizakien jarduerarekin lotuta dagoen klima aldaketa da, munduko atmosferaren egitura aldatzen du, eta konparatu daitezkeen aldietan gertatutako klimaren aldakortasun naturalari gehitzen zaio.
- d) *Energia komunitateak*: energiaren alorrean modu guztiz boluntario eta irekian parte hartzen duten erakunde juridikoak dira, non beren kideek –pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak izan daitezkeenak– egiten baitute benetako kontrola.
- e) *Ekonomia zirkularra*: jasangarritasun maila handiena lortzeko baliabideak eraginkorki erabiltzean oinarritutako ekonomia da; modu horretan, produktu eta zerbitzuen bizi erabilgarria luzatu egiten da eta ekodiseinuaren, hondakinen prebentzioaren eta sorkuntza gutxitzearen, berrerabiltzearen, birmanufakturaren, konponketaren eta material eta produktuen birziklapenaren bitartez “gehiago lortzen da gutxiagorekin”.
- f) *Karbonoan neutroa den ekonomia*: karbono neutritasunak esan nahi du emaitza garbia zero emisioak dela; orok hori erregai fosilen erabilera (petrolioak, iktza, gas naturala, etab.) pixkanaka ezabatuz lortzen da, horiek baitira berotze globalaren eragile nagusiak, baita beste emisio iturri batzuk eta gainerako emisioen konpentsazioa ere.
- g) *Berotegi efektua*: lurrazaleko tenperatura igotzea, berotegi efektuko gas eta substantzia jakin batzuk atmosferan egoteagatik erradiazio infragorria desagertzeko zailtasunaren eraginez.

- h) *Eraginkortasun energetikoa*: zerbitzu edo ondasun bat edo energia ekoizteko lortzen diren emaitzen eta horiek lortzeko erabilitako baliabide energetikoen arteko lotura.
- i) *Emisioak*: gasak eta gas horien aitzindariak atmosferara askatzea, zuzenean edo zeharka giza jardueraren mende dauden iturrietatik abiatuta.
- j) *Iturri berriztagarrietatik lortzen den energia*: energia agorrezina eta mugagabea sortzen duten iturri naturaletatik lortzen den energia da. Energia iturri berriztagarriak dira, besteak beste, biomasa, eguzki energia, energia eolikoa, energia minihidraulikoa eta ozeanoetako energiak.
- k) *Berotegi efektuko gasak (BEG)*: atmosferako gas osagaiak, bai jatorri naturalekoak, bai erradiazio infragorria xurgatu eta berriz isurtzean berotegi efektua eragiten duten giza jardueretatik sortutakoak. Klima aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioan erabaki zutenaren arabera, gaur egun klima aldaketa sortzen dute hauek: karbono dioxidoa (CO₂), gas metanoa (CH₄), oxido nitrosoa (N₂O), sulfuro hexafluoruroa (SF₆), nitrogeno trifluoruroa (NF₃), perfluorokarbonoak (PFC) eta hidrofluorokarbonoak (HFC).
- l) *Azpiegitura verde eta urdina*: eremu naturalak eta erdinaturalak estrategikoki planifikatutako sarea, kalitate handiko ur gorputzak eta beste ingurumen elementu batzuk biltzen dituen, ekosistemen zerbitzuak emateko eta natura ondarea landa kokalekuetatik nahiz hiri kokalekuetatik babesteko diseinatua eta kudeatua.
- m) *Gobernantza klimatikoa*: gizarte, ekonomia eta ingurumen sistema klima aldaketaren arriskuak prebenitzera, arintzera edo egokitzera bideratzeko mekanismo eta neurrien multzoa da.
- n) *Karbono aztarna*: erakunde, ekimen, jarduera edo produktu edo zerbitzu baten bizi zikloari lotutako berotegi efektuko emisio guztiak; klima aldaketari egiten dieten ekarpena ebaluatzeko kalkulatu da. CO₂ tona baliokideetan adierazten da.
- o) *Azpiegitura kritikoak*: ezinbestekoak diren eta soluzio alternatiborik ahalbidetzen ez duten azpiegitura estrategikoak dira; beraz, horiek asaldatzeak edo suntsitzeak eragin larria izango luke funtsezko zerbitzuetan.

- p) *Klima aldaketa arintzea*: gizakiek egindako esku hartzea, berotegi efektuko gasen iturriak gutxitzeko edo hustubideak hobetzeko.
- q) *Neutraltasun klimatikoa*: agertoki honetan, berotegi efektuko gasen emisio garbiak orekatu, eta planetaren xurgapen naturalaren bidez ezabatzen direnen berdinak (edo txikiagoak) dira.
- r) *Proiekzio klimatikoak*: etorkizuneko klimaren irudikapen sinesgarria eta, askotan, sinplifikatua: bere oinarria berotegi efektuko gasen emisioen hainbat supoziori buruzko proiektzioek osatzen dute, hau da, barne lotura klimatologikoen multzo sendo batek, giza jatorriko klima aldaketaren ondorio potentzialak ikertzeko eraikia eta demografiaren, ekonomiaren, teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren bilakaerari buruzko hipotesiak txertatuz egin dena.
- s) *Erresilientzia*: sistema batek arriskuaren ondorioei behar bezala eta eraginkortasunez eusteko, horiek xurgatzeko eta berreskuratzeko duen gaitasuna, bere oinarriko egiturak, funtzioak eta identitateak kontserbatuz edo berrezarrit.
- t) *Arrisku klimatikoa*: gertaera klimatologikoen inpaktuen eraginpean egoteak sortutako galera sozioekonomiko eta ekosistemen galera larriak izateko probabilitatea, zaurgarritasun baldintzekin eta ondorioak gutxitzeko edo horiei erantzuteko gaitasun nahikorik ez izatearekin batera. Arrisku klimatikoaren kudeaketa ezinbesteko faktorea da gizakien segurtasuna, ongizatea, bizi kalitatea eta garapen jasagarria bermatzeko eta areagotzeko.
- u) *Zerbitzu ekosistemikoak*: ekosistemen funtzionamenduaren edo erregulazioaren ondoriozko zuzeneko edo zeharkako onuren multzoa da, ukiezinak barne.
- v) *Karbono hustubidea*: berotegi efektuko gasak, aerosolak edo horien aitzindariak atmosferatik xurgatzen eta finkatzen dituen edozein prozesu, jarduera edo mekanismo, naturala zein artifiziala.
- w) *Trantsizio energetikoa*: ekoizpen eta kontsumo sistemak eta sistema soziopolitikoak aldatzeko prozesua, gizartearen eta ekonomiaren eredu deskarbonizatua sortuko duena; prozesu horretan, erregai fosilen (petrolioa, gasa, ikatza) erabilera gutxitzen

joango da, eta, azkenik, horien ordeztu energia berriztagarrien iturri alternatiboak edo emisiorik egiten ez duten beste iturri batzuk erabiliko dira.

- x) *Bidezko trantsizioa*: klima aldaketari lotutako gizarte eta energia aldaketarako eredu da, eta kontuan hartzen du horren ondoriozko kostuen eta kargen birbanaketa ekitatiboa, enplegu mailen eta kalitatearen arabera.
- y) *Zaurgarritasuna*: klima aldaketak zenbateraino kaltetu lezakeen sistema bat, kaltearekiko sentikortasunaren arabera eta baldintza berriei erantzuteko edo horietara egokitzeko gaitasunaren arabera.